

K...eta!
Kitto!

2017-V-12

1.015 zkia.



Ostadarra irten da Andretxean

R.P.S. 253/14



J. Etxeberria, 13
943 700 230



Audifonoak

Probatu doan / Konpromiso barik



Eibarko denden promozioak

- Kupoi hauek moztu eta denda aurkeztu
- **Bonoak** ez dira bateragarriak
- **Galdetu** baldintzak denda bakoitzean



Homme
 % **20** ko deskontua *Maiatza osoan Denda guztian*
JANTZIAK ETA OSAGARRIAK
Estaziño, 8 943-203741

ITXESI
 HERBODIETETICA
 BELARDENDA
943-203219
Bidebarrieta, 6
Maiatza eta ekainerako
ESKAITZA

JellyPropos
 BAT: 19,95€
 BI EROSITA: 30€

JellyEdu
 BAT: 14,95€
 BI EROSITA: 20€

Birjiñape, 1 943-202833 **Zuloagatarren, 9 943-201240**
Guby
 % **10** eko deskontua *oinetakoetan maiatzean*

Lahidalga
 Hilaren 27ra arte erosketa *Talla eta zabalera bereziko oinetakoak*
 bakoitzarekin **opari bat**
943-203991
Arragueta, 5



No Comment
 % **15** eko deskontua *denboraldi hasierako jantzetan*
 % **10** eko deskontua *udako jantzetan*
T. Etxebarria, 15 943 202 745 *BONO BAT LAGUN BAKOITZEKO*
Maiatzaren 15etik ekainaren 30era

TXUKUNA
 Ekainaren 1etik 30era *lentzeria mertzeria*
 % **30** ko deskontua → *MOZTU IRAGARKI HAU DESKONTUAZ BALIATZEKO
943-821308 Eulojio Garate, 1

Burbujas y más
 % **15** eko deskontua
 jaioberrientzako osagaietan *maiatzean*
Estaziño, 5 Tel. 943 53 16 54

MARRODAN
 BITXITEGIA ERLOJUDENDA
 % **10** eko deskontua *50€ -tik gorako erosketetan*
T. Etxebarria, 24 Tel. 943 20 73 04

San Juanetako Kamisetak *Ereko Arropa*
 % **15** beherapena **MEKA HOTEL** % **15** beherapena
 Estaziño 6, Eibar 943127409
 693771944 *Maiatzak 12 | Maiatzak 22* *Maiatzak 12 | Ekainak 12*



Bidebarrieta, 5 943 201 547
CAPI
 Tratamendu estetiko guztietan
 % **10** eko deskontua *Maiatzaren 31ra arte*



ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO IRUDIA:
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– GURE ESKU DAGO. ESKERRIK ASKO GUZTIOI!! –

Maiatzaren 7an, Eibarren, hautestontziak kalera atera eta eibartarrok hitza hartu genuen. Estreina-koz, erabakitzearen aldeko kultura garatuz, protagonistak izateko aukera izan genuen. Erabakitzeo eskubidea babestea, ekimena herritarren eskuetan jartzea eta estatus politikoaren inguruko eztabaidan sakontzea zen ariketaren helburua. Hori guztiori bermatu eta gero, Eibarren jasotako erantzuna apala izan dela esan dezakegu. Parte-hartzea %11,39koa izan da: 2.839 boto-emaile, alegia. Horietatik, 2.791 euskal errepublika bateko herritarrak izatearen aldekoak eta 41, aldiz, ezezoak.

Emaitzen ginetik, herri galdeketen eskutik hasi gara erabakia gauzatzen eta erabakitzeo modua erakusten. Hala ere, helmugarako bidean lehen pausoa besterik ez dugu burutu. Alde horretatik, lasai eta pozik gaude benetan, eta, aurrerantzean ere, lanean jarraituko dugu borondateak ehuntzen, Euskal Herrian erabakia gauza dadin.

Lan bideratze ahalegin horretan, auzolanean, hainbat eta hainbat herritarren laguntzarekin, sekulako pausoa eman dugu. Eta gutun honen bidez, gure esker ona azaldu nahi dugu. Zerranda luzea den arren, ez genuke inor ahaztu nahi, beraz: mahaietan egon zineten guztiei, muntaketa lanetan jardun zenutenei, jarraipen eta berme batzordeko kideei, informatikoei, segurtasun taldekoei, prentsa arduradunari, eta kitto! astekariari, ekainak 10 taldekoei, soinu arduradunari, lokalen jabeei eta kanpotik etorritako begiraleei... eskerrak guztioi, erronka honetan bidelagun paregabeak izan zarelako.

Amaitzeko, gogoratu ekainaren 10ean Bilbon beste pauso bat emango dugula "Herritarren Itun Nazionalarekin". Bertan elkar ikusiko dugulakoan. **Erronkarako prest gaude. Eta zu beharrezkoa zara.**

Eibarko Gure Esku Dago

– EIBARREN "PRIMERAN JARRAITU DEZAGUN!" –

Laster Eibar KE-ren administrazio kontseilu berria aukeratzeko hauteskundeak dira. Bi proiekturen artean aukeratu beharko da. Baina onartu beharra dago, orain artekoek, gauza asko oso ondo egin dituzuela; inork inoiz amestutakoa bizitzeko aukera eman diguzuela.

Hala ere, ekonomikoki edo kirol mailan lortutakoak aparte, esan beharra dago, hautagaitzaren aurkezpenean, akats txiki bat behintzat egin zenuela: nola liteke akziodun euskaldunak dituen Klub batean, euskararen presentzia hain urria izatea, ia hutsaren hurrengo? Zer gertatu da XX. mendean, euskara sendotzeko konpromisoa duzuenok ere ia euskara guztiz baztertzeri iristeko? Arrazoi ezberdinen artean, nik bat azpimarratuko nuke: euskararen subordinazioa (hizkuntza hegemonikoaren boterea eta inposaketa).

Guztiok txikitatik barneratzen dugu hizkuntza nagusiaren garrantzia (zentraltasuna, derrigortasuna...), eta nola ez, hizkuntza minorizatuaren ahultasuna eta subordinazioa. Boteretik gabe ez dago euskararen minorizazio eta subordinazio egoera gairiditza. Eta benetako berdintasuna lortu ahal izateko, gehienok, errespetuan oinarritutako pareotasuna bilatu beharko genuke.

Hizkuntza bat, bere berezko lurraldean -euskararen lurraldean- ezarri, hedatu eta erabili egiten da.

Eta euskararen hedapen horretan Eibar KE oso garrantzitsua izan daiteke.

Giza arloan eta bereziki Eibarko euskararen normalizazioan, Eibar KE-k zeresan handia du; ume guztiek eskolan ikasitakoa -hizkuntzaren ezagutza-, futbola bezalako aisialdiko jarduerak hain erakargarri erabiltzeko aukera ematen baitu. Batez ere futbol eskolan eta gazte taldeetan euskara aldageletara sartu eta zelaietara atera beharko litzateke.

Eibartarrek mendeetan egin duten bezala, duintasun osoz "Lehen hitza euskaraz!" egiteko ahaletan berezia egin beharko lukete. Eibarren ere, Mikel Larrañagak zioen bezala, gu geu (zer esanik ez, monitore eta entrenatzaile euskaldunak) euskara erabiltzearen eredu izan behar gara.

Euskaldun izatearen harrotasun pixka bat gehiagorekin eta euskaraz denok pixka bat gehiago hitz eginez, euskararen lurraldera etorri direnen edota gurasoek emandakoa baztertu dutenen kontzientzietan ere zerbait gehiago eragin ahal izango dugu. Ea horrela, euskararen erabilpenean benetan eragiteko gai garen. "Euskararen lurraldean, euskaraz ere, Primeran jarraitu dezagun!"

"(...) Min eman badizut, ez hartu gogoan, ez dut inoren kalte izan nahi..."

Ina Oiartzabal

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LIXIBERA.- Lixiba jotzen ibiltzen zen emakumea. Gaztelera 'lavandera'. "Besterik ezian, lixibera egitten eban, nahiz da goizian bostetarako errekarra jatxi zapixak joteko".

LIXO.- Kolore bakarreakoa. "Harek beti soiñeko lixo-lixua".

Laua, kizkurrik gabekoa, leuna. "Lizpapelakin kuliandia lixo-lixo laga dau".



IÑAKI UGARTEBURU

Azukredun edariei zerga

2016ko abenduan, Montoro jaunak, adierazi zuen estatuan 200 milioi euro gehiago jasoko zituztela azukredun edariei jarri nahi zioten zerga berriari esker. Oraingo ez dute ezer egin. Katalunian martxoan erabaki zuten %10 eta %20 arteko zerga gehigarria ezartzea aipatu edariei, eta maiatzaren 1etik aurrera indarrean dago. Beste produktuetara zabaltzeko asmoa dute; koipe edota azukre asko duten produktuetara, hain zuzen ere. Katalunian diotenez neurria kontsumitzaileari begira baino gehiago, produktoreei begira hartu dute, konturatu daitezen era horretako produktuen kontsumoa oztopatu nahi dela, kaltegarriak direlako. Euskadiko Erkidegoan, oraingo, nik dakidala ez dute, arlo honetan neurririk hartzeko asmorik. Bere momentuan tabakoa baztertzeko hartutako neurriek markatu dute bidea. Osasunaren ikuspegitik kaltegarriak diren produktuen kontsumoa oztopatzera edo gutxitzera bideratutako erabakiak gero eta ohikoagoak izango direla uste dut. Aipatu edariei gehiegizko azukrea dute eta jakina da azukrea osasunaren arerio handia izan daitekeela. Nik nire ikuspegitik egokia ikusten dut era horretako neurriak hartzea, eta pentsatu nahi dut hau hasiera besterik ez dela eta epe laburrean produktu ez osasungarrien produkzio eta kontsumoa oztopatzera bideratutako neurri gehiago hartuko direla.

Euskeraz Primeran sarea ehuntzeko kanpaina hasi da

“Izan zeu be euskeriaren armiarma eta ehundu sarea!” goiburuari helduta, kanpaina barri bateri ekin detsa Euskeraz Primeran! programiak. Abiapuntua aurreko astian izan zan: Berbetan mintzapraktika-programako berbalagunen artian “Euskeraz Primeran” insigniak banatu zittuen ...eta kitto!-kuak, bakotzak inguruan dakan jendia-rian artian banatzeko.



Izan be, asmua sare haundi bat osatzia da. Hillebete osuan egongo da martxan kanpaina eta, baten batek insigniak hartzia nahi izanez gero, ...eta kitto!-ko bulegora edo Eibarko bi euskaltegixetara jua leike jasotzera. Bakotxari hiru insignia emongo detsez, bat norberarendako eta beste bixak euskeria erabiltzeko konpromisua hartu nahi dabenendako. Aurreko as-

tian insigniak jaso eta argazkixa egitteko talde-txo bat alkartu zan euskera alkartiaren buleguan. Arduradunak esan dabenez, “datozen astiotan amarauna ehuntzen segiduko dogu eta maiatzaren 31n atzera be alkartuko gara, toki berian. la ordurako argazkixan daguazenen kopurua bikoiztu eta, zergaittik ez, hirukoiztu egitten dogun!”.



millioi eurotik gora gastau dira eskola publikuak hobetzeko biharretan azken 7 urtitan. Aurten 220.000 euro inbertiduko dittue holakuetan: Arrateko Andra Mari eskolako teillatu-hegalak konpontzeko 10.000 euro eta komunak barritzeko 15.000 euro gehixago; eta Sansaburuko jolastokixa estaltzeko biharretan, barriz, 160.000 euro.

Jendetza batu zan hilketa matxistaren kontra

Aurreko asteko martitzenian Alcobendasen (Madril) gertatutakuaren harira, Rakel Lopez Airas eta Markel semiaren hilketak gaitzesteko aurreko eguen illuntzerako deittutako alkarretaratzia jendetza batu eban “Matxismoak hiltzen jarraitzen gaitu” idatzitta zekan pankartaren inguruan. 15 miñutuko ixi-



llunia txalo artian eten zan eta, jarraixan, famelixaren lagun batek euren izenian komunikaua irakorri eban. Bestiak beste, bizitzen diharduen egoera lartzari aurre egitteko bihar daben lasaittasuna eskatu eban. Horrekin batera, indarke-rixa matxistarekin amaitzeko premiñaz ohartarazi zittuan.

Astelehenian ospatuko da San Isidro Arraten

Urteroko moduan, San Isidro nekazarixen patrioiaren egunian bere omenezko jaixa ospatuko dabe Eibar eta inguruko basarritarrak, goizetik hasiko dan programiari jarraituta. Goizeko 11:30xetan mezia egingo dabe, bertolari eta trikitilarixekin. Ondoren prozesiñua eta aureskua etorriko dira, Kezka Dantza Taldiaren eskutik. Hori amaituta txakoliña, gaztaia eta aire librian haztitzako basatxerri ezaugarria daken txerrikixak jateko aukeria egongo da. San Isidroetako XV. Aizkolari txapelketia, barriz, 12:30xetan hasiko da eta, tarteka, harrija-



sotzailliak saiuu eskinduko dabe. Bazkari-xa Kantabria jatetxian izango da eta bazkalostia girotzen bertolarixak eta trikitilarixak jardungo dabe. Eta, jaixari agur esan baiño lehen, idi-demak hartuko dattu Arrateko probalekuak.

Gimnasia egitteko makiñak Azittaiñen

Ariketa fisikua kalia egin nahi dabenendako gimnasia-makiñak ipiñi dittue Azittaiñen, tren geltokitik gertu (Lidl dendiaren atzealdian, pasabidia igaro eta errekarren beste aldian). 10 makiña dagoz guztira eta bakotxa ariketa konkretu baterako pentsauta dago: hanka-prensa, arraunian egin eta dorsalak lantzekua, pesak etzinda egitteko bankua, abdominalak egitteko bankua, lunbarrak lantzekua, hankak flexionau eta tenkatzekua, oreka lantzeko platera, gerrixa lantzekua, sorbalda-errotaziñua lantzekua eta bizikleta eliptikua.



autuan

EH BILDUREN FOROA

EH Bilduren prozesu eratzailia martxan dago eta, horren harira, hainbat herrittan Foroak antolatu dira. Eibar eta Soraluzekundako bixar egingo da, 10:30xetan Arrate Kultur Elkarte. Unai Larreategik eta Larraitz Ugartek jardungo dabe berbetan eta interesa dakan edozeiñendako atiak zabalik egingo dira.



BOLATOKIXA BARRIRO ZBALIK

Kantabriako Etxekuak Ipuruan daken bolatokixa atzera be martxan ipiñiko dabe, tabernia alokairuan hartu dabe eta. Egunotan tokixa txukuntzen jardun dabe eta inauguraziñua gaur izango da, 19:00etan.

SAN ANDRES FUNDAZIO PUBLIKOA

Eibarko San Andres egoitzak ondorengo LANPOSTUETARAKO

LAN POLTSAK eratu behar ditu. Interesatuek bidali cv ondorengo helbideetako batera:

Posta arrunt bidez: **Legarre 6. 20600 Eibar.** Posta elektronikoz: **fpsanandres@stl.logiccontrol.es**

LANPOSTUA

Erizaina

BETEBEHARRAK

- Erizain unibertsitate titulua
- 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea

Erizain Laguntzailea

- Erizain laguntzaile titulua (Lanbide Heziketa) edo erakunde sozialetan menpekotasun egoeran dauden pertsoneri arreta egiteko ikastaroa
- Elikagaiak manipulatzeko txartela
- 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea

Garbitzaile/Zerbitzaria

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo baliokidea
- Elikagaiak manipulatzeko txartela
- 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea

Jangelako laguntzailea

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo baliokidea
- Elikagaiak manipulatzeko txartela
- 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea

“Emeek emana”, 53 andrakumek esandakuak biltzen dittuan erakusketia zabalik

Eguaztenian inaugurau eben maiatzaren 21era arte udaletxeko patixuak hartuko daben “Emeek emana” erakusketia. Hori aurkezteko ekitaldixa aurreko barixakuan izan zan eta Patxi Lejardi, Kulturako eta Euskara ziñegotzixak, Julia Monge, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kidiak, Josu Iburguxi, Goldatu plataformaren bozeramailliak eta erakusketa honetako protagonistetako bat dan Kontxi Laspiur andra errepesaliatu eibartarrak hartu eben parte.

Intxorta 1937 Kultur Elkartaren eta Mauro Saravia argaz-

kilari txiletarraren eskutik antolatutako erakusketia herririk herri eruango dabe. Lehen aldiz Donostian, Aiete jauregixan erakutsi dabe oin dala egun gutxi eta eguaztenaz geroztik Eibarren ikusteko moduan izango da, beste toki batera eruan arte. Bisitan juateko ordutegixa hau da: astelehnetik barixakura, 09:00etatik 15:00etara eta 18:30etatik 20:30etara; eta zapatu eta domeketan, barriz, 12:00etatik 14:00etara.

Erakusketia preparatzen urte bi pasau dittue biharrian, andren inguruko informaziñua ja-



Eguaztenian inauguratutako erakusketia hillaren 21era arte egongo da.

sotzen, eurekin kontaktuan ipiñi eta testigantzak grabatzen eta bakotxari argazkixak egitzen, bestiak beste. “Emeek emana” erakusketan 53 emakumeren lekukotasunak bildu dittue, euretako bakotxari buruzko datu biografikuekin batera eta, alkarrizketen trans-

kripziñuak laburtu eta gero, 6/8 miñutuko iraupena daken grabaziñuak sortu dittue, erakusketia ikustera gerturatzen diranak lekukotasunak zuzenian euren ahotik entzuteko aukeria izan deixen. Horrekin batera, nahi dabenendako bisita gidatuak eskinduko dittue.

Hizkuntza trukaketarako bikotiak txalan-txalan




Txalan Txalan izeneko programia ipiñi dabe martxan ...eta kitto! Euskara Elkartekuak, udaleko Gizartekintza saillaren laguntasunarekin. Asmua Eibarko eta beste jatorri batzuetako bizilagunak aurrez aurre alkar ezagutzeko aukeria eskintzia da. Arduradunen berbetan, “Bikotiak osatuko dira eta, ondoren, alkartzen diranian, eurak nahi daben hizkuntza ikasi eta praktikatziaz gain, ohiturak, kulturak... alkartrukatzeko aukeria be eukiko dabe”.

Parte hartu nahi dabenendako izen-erotia zabalik dago: ...eta kitto!-n, 943200918 telefonora deittuta edo ongietorri@etakitto.eus helbidera idatzizta; Portalean, Immigraziño zerbitzuan, 943708440 telefonora deittuta edo immigraziño@eibar.eus helbidera idatzizta. Eskatzen daben konpromisua astian ordubete eta erdiz alkartzia da. Izen-eroteko epia itxi eta gero, alkarrizketak egingo dittue arduradunak, bakotxaren zaletasunak, ordutegixak... zeintzuk diran ikusi eta horren araberako bikotiak sortzeko. Programiak 5 asteko iraupena eukiko dau, hillaren 15ian hasi eta ekaiñaren 18xan amaitzeko.

III. “Marcan Huella” jaialdixa egingo dabe zapatuan Coliseoan

Bixar “Marcan Huella” alkartiaren jaialdi berezixa hartuko dau Coliseo antzokixak 19:00etatik aurrera. Bestiak beste dantza, musikia, bestelako emanaldixak, zozketak... egingo dira eta jasotzen daben dirua gure eskualdian abandonatzen diran txakurreri laguntzeko erabiliko da. Horregaitik, Eibar eta inguruan bizi diranak jaialdixan parte hartzera animau nahi dittue antolatzailiak, “sorpresa mordua egongo diralako eta primeran pasauko dogulako”. Jaialdixan parte hartuko daben artian “Feel the sound junior” dantza taldia, Khuzayma-ko dantzariak eta “Aurrera atera”-ko Mikel eta Maria dagoz. Sarrerak 6 euro balixo dau eta aurretik erosteko aukeria dago, Nane Modan (Ermua) eta Jardiñeta dendan (Eibar). Nahi izanez gero, whatsapp bidez be lortu leikez (620 72 09 54).



JOSE ARZA AJURIA

2017ko maiatzaren 2an hil zen

“Bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko”

ETXEKOEK

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



TUTULUMENDI



IDURRE IRIONDO


Mongoliako ume elbarrituen aldeko zozketan sarixa jaso dau Ander Larrañagak

Durangoko La Otra Mirada alkartiak ume elbarrixendako eguneko zentrua zabaldu dau Mongolian eta, proiekturako dirua batzeko, apirillerako zozketia antolatu eban, Helmugak proiektuarekin diharduan Koikili Lertxundirekin eta Eibar eta Abadiño Forum kirol dendeekin batera. Horrekin batera, La Otra Mirada alkarte-ko boluntariuak apirillaren 12xan Eibarko Forum dendaran ziranerik Alzolako ura banatzen ibilli ziran eta, bide batez, egitten ari diran lanari buruzko informaziñua zabaldu eben. Zozketan irabazle suertatu zan Ander Larrañagak Eibarko Forumspord dendan jaso eban bere sarixa aurreko astian, zozketaren arduradunen eskutik. La Otra Mirada alkartekuak eurengana gerturatutako guztieri eta zozketan parte hartuta lagundu dabeneri eskerrak emon nahi detse.



“Errefuxiatuak Ongi Etorri” erakusketia Biharran espazioan

Mugak eta Sos Arrazakeriak erakundiak sortutako “Errefuxiatuak Ongi Etorri” erakusketia hartu dabe egunotan Biharran espazioan (Ubitxa, 16-18). Gaur izango da ikustera juateko azken eguna, arratsaldeko 19:00ak arte. “Errefuxiatuak Ongi Etorri” erakusketia osatzen daben 17 paneletan Europar bitzen dihardugun egoeraren nundik-norakuak jaso dittue. Ekialde Hurbilleko eta Afrikako gerrak eraginda (Afganistan 1978-2001, Irak 1980-1991-2003, Sudan 1983, Somalia 1991, Eritrea 1998, Siria eta Libia 2011, Mali 2012), eta Europako gobernuak ez dabenez nahi babes politikarik bete, dagoeneko 4.000.000 lagun euren sorterrixa laga eta Europako hainbat estatura (Alemania, Italia, Grezia, Espaiña...) ihes egin dabe, babes billa.



1987xan jaixotakuak alkartu ziran zapatuan



Aurten 30 urte bete edo beteko dabenak alkarrekin bazkaltzeko alkartu ziran aurreko zapatuan. Beste “kinto” batzuek horrelakue-tan egitten daben moduan, gaztiak eguardi partian Untzagan alkartu eta taldiaren argazkixa etarata ekin zetsen egunari eta, ondoren, bazkaltzera juateko ordua ailegau bitartian txikiteuan ibilli ziran.

Esteban Plazaola Zubizarreta (2017-V-3)



Eredugarria izan zara guretzat. Bihotz handiko gizona. Eskuzabala. Laguntzailea. Eta modu horretan joan zara, ingurukoei laguntzen. Asko ikasi dugu zugaratik. Oso harro gaude zutaz. Argi izan, zuk landatutako hazia behar bezala zainduko dugula.

IZUGARRI MAITE ZAITUGU DITATXI. BETI IZANGO ZARA GURE BIHOTZETAN.
Amatxo, Jaione eta Leire.

Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.



Marcan Huella

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Marcan Huella irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, 2014ko martxoaren 30ean sortua, Ermuan. Elkartearen helburu nagusia da Debabarrenean abandonua eta tratu txarrak jasan dituzten txakurren segurtasuna eta ongizatea bermatzea. Adopzioa bultzatzen dugu, hainbat kanpainaren eta zabalkuntza lanaren bidez, txakur horiek bigarren aukera bat izan dezaten, bizitza duina izateko.

Babeslekurik ez dugunez, harrera etxeetan eta txakur hoteletan hartzen ditugu, behin betiko etxe bat aurkitzen diegun bitartean, eta helburu hori lortzeko lanak dakartzan gastuei aurre egiteko, ezinbestekoak ditugu bazkideen ekarpena, partikularren diru laguntzak eta gure asmoak betetzeko dirua lortze aldera antolatzen ditugun ekitaldi guztietan lan egiten duten boluntarioen ahalegina.

Ekintza nagusiak

Urtean zehar hainbat ekintza egiten ditugu, animaliei zor zaien tratu onaren gaineko kontzientzia sortzeko, txakurrak nola zaindu behar diren aholkatzeko eta txakur jabetza arduratsua bultzatzeko, baita dirua biltzeko ere, besteak beste, merchandising produktuen salmentaren eta zozketen bidez. Ekintzak: Ibilaldi solidarioa, Txakur krossa, Ongintzako gala musikala, Txakurraren eguna, Informazio hitzaldiak ikastetxeetan, Desgaituen terapia txakurrekin...

e-maila:

marcanhuella@gmail.com

facebook:

Marcan Huella

webgunea:

www.marcanhuella.es



Urtean zehar hainbat ekintza antolatzen dituzte.

Gazte Safa emakume taldea

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Orain dela gutxi sortu den Gazte Safa taldearen aurretik Safa Emakume Taldea egon da Eibarren urte askotan. Emakume magrebiek osatzen zuten talde hori eta Euskal Herrian emakume musulmanek sortutako lehenengo elkarte izan zen. Euren helburua gehienbat emakume etorri berriei laguntza eskaintzea zen. Orain erreleboa Gazte Safakoek hartu dute eta elkartearen izakera eta xedeak aldatu egin dira, nahiz eta prest dauden lehenengo elkarteak eskaintzen zuen laguntza eta zerbitzuak ematen jarraitzeko. Gazte hauek musulmanen bigarren belaunaldikoak dira, Eibarren jaiotakoak. Taldean 10 emakume gazte inguru daude, eta euren zeregin nagusia herriko bizitzan emakume hauen parte-hartzea bultzatzea da (Korrikan, esate baterako), Eibarko aniztasuna kontuan hartuta eta ezagutzak eta esperientziak konpartituz. Taldea guztiz irekia da eta edozeinentzako zabalik ditu ateak.

Ekintza nagusiak

- Gorputz adierazpena Portalean zapatu eta domeketan (zumba, fitness, sabel-dantza...); mendira irteerak...
- Boluntarioria (odol ematea, gaixo eta nagusiei konpainia...)
- Formakuntza-saioak.

helbidea:

Andretxea (Zezen bide, 9)

e-maila:

gaztesafa@gmail.com

facebook:

Gazte Safa



Taldeak sortu duen logotipo berria.



Maialen Belaustegi

Galiziako musikia, dantzak eta janarixa nagusitu ziran Urkizun

As Burgas Galiziako Etxekuen eskutik aurreko barixakutik domekara bittartian ospatu ziran XXXIV. Dia Das Letras Galegas jaixak ederto girotu eben asteburu osua Urkizu inguruan. Urteroko moduan, Galiziako musikia, dantzak, olagarrua eta Ri-beiro eta Albariño arduak izan ziran jaun eta jabe, programia osatzen eben beste ekitaldi batzurekin batera. Zelako girua egon zan ikusi nahi badozue, etakitto.eus orrixan sartu eta "Mediateka" atalian jaixetako argazki albuma topauko dozue.

Eguzkixa lagun, primeran ospatu zittuen Santa Kurutz jaixak

Apirilleko azken asteburuan hasittako Santa Kurutz jaixak aurreko asteburuan jarraitu eben, zapatu eta domekarako prestatutako programiari esker. Aurten eguzkixa lagun izan dabe eta, eguraldi edarrarekin animauta, jende askok aprobetxau eban Santa Kurutz ermitta ingururairiño buelta bat emon eta, bide batez, jaixarekin bat egitteko. Domeka eguardixan egindako argazkixekin bilduma osatu dogu, nahi dabenak etakitto.eus orrixan sartu eta "Mediateka" atalera jo ezkeru ikusteko aukeria izan deixan.



Maialen Belaustegi

La Salle Astia ospatu dabe kolegixoko ikastetxe bixetan



Aste honetan La Salle Astia ospatu dabe Eibarren daguazen ikastetxe bixetan, Isasiko eta Azittaingo eskoletan. Bestiak beste, aste osuan olinpiadak jokatzen ibilli dira eta, horrekin batera, Isasin guraso, ikasle eta irakaslien arteko jolasak egin zittuen martitzenian eta eguaztenean, barriz, "Baloi erraldoia" izenekua. Azitaiñen play back lehiaketia egin eben atzo eta gela guztiak hartu eben parte. Egun nagusiña, baiña, gaur ospatuko dabe ikastetxe bixetan, goizetik hasi dan programarekin.

egitaraua

08:45 - 09:00:	Akreditazioa eta dokumentazioa.
09:00 - 09:15:	Ongietorria.
09:20 - 10:05:	"Hiztun berriek erabiltzen dute euskara?: Hizkuntza-ohitura eta beste gako batzuen eragina". Estibaliz Amorrortu. Deustuko Unibertsitatea. "Guraso ia euskaldunak eta euskara". Arrate Gisasola. Ebeñe-ko kidea.
10:10 - 10:35:	"Herrigintzaz eta irigintzaz". Jose Mari Agirretxe. Porrotx.
10:40 - 11:05:	"Agurainen, egunerokoan, 75 ordu euskaraz". Asier Lafuente. Ekimenaren antolakuntzako kidea.
11:10 - 11:35:	"Argia ikastola: Erriberan etorkizuna ereiten". Argiñe Korta eta Maru Eriz. Argia Ikastola.
11:40 - 12:05:	ATSEDENALDIA
12:05 - 12:20:	"Euskara eta plazerra lotuz etorri berriei harrera ona egin". Maite Asensio. Urtxintxa Eskola.
12:25 - 12:50:	"Hizkuntzen trataera migratzaileen harreran, administrazioz kanpoko eragileen eskutik" Mario Zapata. Soziologo.
12:55 - 13:35:	MAHAINGURUA: Estibaliz Amorrortu, Arrate Gisasola, Maite Asensio eta Mario Zapata. Dinamizatzaile: JAIME ALTUNA.
13:40 - 14:25:	AGURRA
14:30:	BAZKARIA
14:35:	

Maiatzak 23, asteartea

EUSKARAREN TRANSMISIOA mintegia

IZEN EMATEA zabalik

www.etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus 943 20 09 18



Antolatzaileak:



Babeslea:



Laguntzaileak:



2.839 botoemaitetik 2.791-k euskal errepublika bateko herritarra izatearen aldeko bozka eman zuen

GURE ESKU DAGO DINAMIKAREN EKIMENEZ domekan estatus politikoari buruzko herri galdeketak egin ziren 52 herritan, tartean geurean. Herritarrek egun osoan izan zuten euren bozka bitartez gure etorkizunari buruzko iritzia adierazteko aukera eta, 20:00etan Eibarren ipini zituzten sei mahaiak itxi eta hautesontzietako botoak zenbatuta, Eibarko Gure Esku Dago-ko jarraipen batzordeak berehala eman zuen herri-galdeketa behin-betiko emaitzen berri. Eibarren 2.839 boto jaso zituzten guztira eta egindako galderak ("Euskal errepublika bateko herritarra izan nahi duzu?) 2.791 **baiezko**, 41 **ezezko**, 2 **baliogabe** eta 5 **zuri** jaso ditu. Debabarrean izandako partehartzeari buruzko datuak, berriz, hauek dira: Eibarren %11,39koa, Deban %25,20koa, Elgoibarren %22,10, Itziarren %44,46koa, Mutrikun %34,97koa eta Sorluzen %27,29. Eskualde osoko partehartzea, batez beste, %18,74koa izan zen.



Asko familian joan ziren bozkatzera, eta gaupasa eginda bozkatu zuenik ere izan zen.



Untzagan egindako agerraldiarekin ekin zioten egunari Eibarko Gure Esku Dago-ko kideek.

Gure herriko emaitzak mahairik-mahai, berriz, hauek izan ziren: Urkizun, 580 botoemale (576 baiezko, 4 ezezko; Arrate Kultur Elkartean, 551 botoemale (541 baiezko, 8 ezezko, 2 zuri); Ipuruan, 348 botoemale (342 baiezko, 6 ezezko); Amañan, 218 botoemale (215 baiezko, 3 ezezko); Untzaga-1 mahaietan, 531 botoemale (519 baiezko, 8 ezezko, baliogabe 1, 3 zuri); eta Untzaga-2 mahaietan, 611 botoemale (598 baiezko, 12 ezezko, baliogabe 1).

Domekan 250.000 herritar zeuden deituta bozka ematera. Orotara 138 hautesontzi 63.201 bozkarekin bete ziren eta herri ezberdinetan antolatutako galdeketa parte hartzera deituta zeuden herritarren %25,49k hartu zuen parte. Gauean Angel Oiarbidek Eibarren egindako adierazpenetan, GEDeko ordezkariak pozik agertu ziren lortutako emaitzekin eta giza-katea egin zuten eguneko kopuruetatik gertu ibili direla adierazi zuten.

Ekainaren 10ean mosaiko erraldoia

Maiatzaren 7ko herri-galdeketa oihartzuna oraindik belarrietan dugula, Gure Esku Dago erabakitze eskubidearen aldeko dinamika hurrengo erronkaren berri eman zuen eguaztenean: ekainaren 10ean Bilbon, Euskadi plazatik hasi eta Moyua plazaraino, galdera marka baten formare-



Herri-galdeketa zela-eta, Kataluniatik etorri ziren hainbat lagun begirale gisa.



Errifaren zozketako irabazlea saritutako txartela esku duela.

kin mosaiko erraldoia irudikatu nahi du. Mobilizazioaren amaieran, 'Herritarren Ituna' aurkeztuko dutela aurreratu dute.

Ekimena finantzatzeko herrietan "konpromiso txartelak" jarri dituzte salgai, 2 euroren truke. Bestalde, ekainaren 10eko mobilizazioari begira, "Prest Eguna" antolatu dute maiatzaren 27ko asteburuan Euskal Herriko herri eta auzoetan eta, horren harira, egun horretan herri askotan galdera markak osatuko dira.



Entzundakoa errefusatu zuen lehenik Laurak, Aitorren amak. Min handia egin zion bere semearen diagnostikoa jakiteak. Gero, lasaitasuna sentitu zuen, bazekielako zer zen bere semeari gertatzen zitzaiona. Neurriak jartzea bazeukan, bazekien nora jo eta, oso garrantzitsua dena, bazeukan nora jo. Autismoa du Aitorrek eta, Mikelen familiak egin bezala, Gautenara jo zuen erabateko bizi-kalitatea lortzeko aukera izan dezan.



GAUTENA: autismoarekin bizikidetza hobetzen

Mikelek ez zuen begietara begiratzten. *“Gu, guraso bezala, ez ginen konturatzen, baina arrebak komentatzen zidan umeak zerbait zuela”*. Hectorrek, Mikelen aitak, beste umeekin konparatuz bere semeak aurrera egiten ez zuela aitortzen du. Bere arrebak kontu berearekin jarraitzen zuen eta *“eskolan urtebete egin behar zuenean, andereñoak galdetu zigun umeari zerbait berezia ikusten genion”*. Mikelek ez zuela kasurik egiten igarri zuten eskolan, baina ez ziren ezer diagnostikatzen ausartzen. Beraz, pediatraren eraman eta *“bertan medikua ez balego bezala aritu zen Mikel”*. Pediatrak neurologora bidali eta handik Gautenara bideratu zuten kasua. *“Mikelek autismoa zuela esan ziguten han eta kolpe handia izan zen”*.

Kolpearen ostean, ordea, *“zerua ireki zitzaigun Gautenarekin”*. Ezjakintasunak ematen duen beldurra albo batera utzi zuen Mikelen familiak, *“ez genekielako umea nolakoa izango zen”*, eta Gautenaren bitartez egoera asimilatu eta beste modu bate-

an onartu zuten. Jara Larreategi Gautenako psikologoak dioenez, *“autismoarekin gertatzen dena da zuk dituzun amatasun eta aitatasun kontzeptu eta nozioek ez dutela modu berean balio”*. Gautenan ildo horretan egiten dute lan, diagnostiko batek tratamendu bat ematen duelako eta tratamenduak nola jokatu behar den azaltzen duelako. Bere berbetan, beste seme-alabekin martxan jartzen duten amatasun eta aitatasunak ez du balio Mikelekin eta Aitorrekin, *“eta gu guraso eta umeen bizi-kalitatea hobetzen saiatzen gara”*.

Peregrinazioa alde batetik bestera

Mikeli diagnostikoa bi urterekin egin zioten, Aitorri bost urterekin. *“Aitorren kasua ezberdina da, berba egiten duen umea delako”*, dio Larreategik. Txikitan zerbait zue-

la pentsatzen zuen Aitorren familiak, beti negarrez zegoelako, dena seinatu egiten zuelako eta ez zuelako berba egiten. *“Baina, bi urteko gelan hasi zenean, hilabete eta erdian irakasleak ahotsaren tonua ere entzun ez ziola esateak atentzioa deitu zigun”*. Etxean, hala ere, berba egiten zuen, eta horrek susmoa piztu zuen Aitorren familian. *“Ez zen beste umeekin erlazioatzen eta helduekin zegoen beti. Gau asko lo egin barik pasatzen zituen, geldiezina zen, edozergatik negar egiten zuen eta oihuka ibiltzen zen, baina berba egiten zuen”*.

Anai nagusia dauka Aitorrek eta, biak alderatuz, Laurak ez zuen normala ikusten Aitorren jarrera. Pazientzia edukitzeko esan zion pediatra batek eta beste batek Osasun Mentaleko zentrori bideratu zuen kasua. *“Hainbat buelta eman ostean, Gautenaren amaitu genuen”*. Larreategik onartzen duenez, *“Aitorrek dituen gaitasunak aintzat hartuta, normala da diagnostikoan nahasmena egotea”*. Nahiz eta gurasoek toki batetik bestera *“peregrina-*

**“Zerua ireki
zitzaigun
Gautenarekin”**

PETRA LENIZ ARGOITIA

2017ko maiatzaren 6an hil zen

**“ZURE irribarre eta samurtasuna betirako
izango dira GURE ARTEAN” —ETXEKOAK—**

Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



zioa" egin, "ez da denbora galtzea", psikologoaren ustez, "beti profesional baten begiradapean zaudelako".

Pediatren bost galderak

Pediatrek "oso lan zaila" dutela azpimarratzen du Larreategik, "baina zorionez oso pediatra onak dauzkagu Eibarren". Autismoa diagnostikatzeko orduan gero eta trebatuagoak daude pediatrik eta detekzio goiztiarra egiten dute. "Indikatzaile onena da, iragarpen onena". Horretarako, kontsultetan bost galdera egitea proposatzen die psikologoak pediatriei: umeak, bere izena esatean, erantzuten du? Begietara begiratzen du? Zurekin jolastu nahi du eta jolasteko besoak altxatzen ditu? Beste umeengana hurbiltzen da eta ez ditu errefusatzeko? Barre egiten du ikusten zaituenean?

Kontsultak irauten duen 10 minutuetan ume berezia dela ondorioztatu dezake pediatrik, "baina ume berezi guztiek ez daukate diagnostikoa". Noiz ematen da diagnostikoa? "Arazoak bizitza mugatzen duenean".

Pauta pertsonalizatuak

Euren adineko edozein ume bezala, Mikel eta Aitor ikastolara joaten dira, baina astean ordu batez laguntza psikopedagogikoa jasotzen dute Gautenan. Ume bakoitzarentzat tratamendu individualizatu eskaintzen die elkarteak, "eta gurasoentzat jarraibide asko", Larreategiren berbetan. "Azken finean, astean ordu batez egoten naiz umearekin, baina beste denbora guztia eskolan edo gurasoekin daude". Hori aintzat hartuta, Gautenak, hezkuntza zentroek, Berritzeguneak eta gurasoek koordinatuta egiten dute lan plana adostu ostean.

Kasu ezberdinak izanda, Mikel eta Aitorrek pauta pertsonalizatuak jarraitzen dituzte euren tratamenduetan. "Autismoa oso sindrome zabala eta heterogeneoa da", beraz, ume bakoitzarekin helburu ezberdinak zehazten dira.

"Gurearen helburua, batez ere, berba egitea bultzatzea da", dio Hectorrek, Mi-



Jara Larreategi GAUTENAKO LANGILEA

kelen aitak. Horretarako, jostailuak umea iristen ez den altueran jartzen dituzte, "berba egiteak dituen abantailez konturatzeko". Gurasoak aitortzen duenez, formula horrek funtzionatzen du eta Mikelek hitz solteak esaten ditu. "Zinbuluan gaudenean, adibidez, bultzatzeko eskatzen dit". Psikologoaren berbetan, "gurasoekin komunikazio estrategia egokiak erabiltzea da bilatzen duguna". Kanpoko jendearekin ere komunikatzen dela dio Mikelen aitak, "baina beti zerbait nahi duelako". Hala ere, noizean behin beste umeekin jolastu duela dio.

- ZER DA GAUTENA?

Gipuzkoako Autismo Elkarteak da eta euren semeek laguntza beharrak zituztela ikusten zuten gurasoek sortu zuten 1978an. 80. hamarkadan asoziazionismoak indar handia izan zuen eta laguntza asko jaso genuen Foru Aldundiaren eskutik. Gainera, Joaquin Fuentes izan genuen eta daukagu erreferente bezala, autismoaren ikertzaile handienetakoa dena eta hau guztia martxan jarri zuena. Gaur egun hainbat zerbitzu eskaintzen ditugun 180 langilek osatzen dugu elkarteak.

- ZEIN ZERBITZU ESKAINTZEN DITUZUE?

Diagnostiko eta tratamendu zerbitzua (Eibarren), hezkuntza zerbitzua (Eibarren), eguneko arreta zerbitzua, etxebizitza zerbitzua, aisia eta denbora librekoa (Eibarren), eta familientzako laguntza zerbitzua eta elkarte ekintzak (Eibarren).

- ZENBAT PERTSONA JASOTZEN DITUZUE EIBARKO ZENTROAN?

Debabarreneko 130 pertsonari eskaintzen diegu arreta eta horietatik 28 Eibarkoak dira (eurretako hiru 18 urtez gorakoak).

Aitorren kasuan beste modu baten jokatzen du psikologoak. "Astean zehar nola joan zaion, arazorik izan duen eta abar galdetzen diot, baina baita gurasoei ere", familiari ematen zaion orientazioa nabarmenduz.

Alde positiboak azpimarratu

Orain dela denbora gutxi galdera batekin etorri zitzaion Aitor amari. "Ama, noiz sendatuko zait autismoa?". Laura blokeatuta geratu zen, ez zeukan erantzuna prest. "Mundua gainera etorri zitzaidan". Gero, semea hartu eta normala zela esan zion,



**Ezkontzen
DENBORALDIA**

*Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*



50.
urteurrena

DARIO
bus

www.dariobus.com - clientes@dariobus.com

Tel. 943 741 677

“kontua da ezberdina zarela. Akaso ama ez da normala betaurrekoak dituelako? Normala naiz, baina ezberdina, zu bezala”.

Autismoan ez dago estigma fisikorik eta zaila da zerbait gertatzen zaiola detektatzea, eta horrek nahasmena sortzen du ingurukoengan eta hortik datoz irainak, txantxak eta halakoak. “Nik beti azaltzen diet denak ezberdinak garela eta euren buruak ezberdin funtzionatzen duela, nireak bezala. Ezberdina izatea batzuetan primerakoa dela, baina gauza batzuk ikastea kostatzen zaiela eta horregatik laguntzen diegula. Gainera, azpimarratzen die ez dela euren errua gauza batzuk ikastea gehiago kostatzea, autismoarena baizik”, azaltzen du psikologoak.

Bai Mikelen, bai Aitorren gurasoek euren ingurua “gozarena” dela diote. Gero, gela mailan, eskolan, gakoa tutorea dela dio Larreategik. “Irakasleak autismoa duen ikaslea ekintza guztietan sartzen badu, denak ezberdinak garela esan eta autismoa



Apirilaren lehen asteburuan egindako Lehen Ibilaldi Urdinean milatik gora lagun izan ziren parte hartzen. Gautena Gipuzkoako Autismo Elkarteak etengabeko jardunean dihardu.



duenak beste behar batzuk dituela azaltzen badu, eta autismoa duen horren puntu positiboak azpimarratzen baditu, primeran!”.

Lasaitasuna etorkizunera begira

Gautenan hasi zirenetik “aurrerapen handia” ikusi dute euren semeengan Hectorrek eta Laurak. Hala ere, Mikelen aitak dioenez, “gehiago nahi duzu beti”. Etorkizunera begira, Gautenaren presentziak lasaitasuna ematen dio Hectorri. “Etxebizitza zerbitzua, eguneko arreta zerbitzua eta atzean Gautena egotea abantaila handia da”.

Prozesua geldoa izan daiteke, etenik gabekoa eta bertan parte hartzen duten guztien ahalegina eskatzen duena, “baina prozesua ondo eramanez gero, ahalik eta bizitza normalizatuena izango dute umee



etorkizuneari”, Larreategiren berbetan. Pertsona bakoitzaren arabera da, “baina oso etorkizun ona zuten kasuekin egin dut topo”.

Laurak, adibidez, negar batean jaso zituen Aitorrek etxera ekarri zituen lehen notak. “Dena gutxi!”. Hala ere, etorkizunera begira argi dauka zeintzuk diren lehentasunak. “Matematikak ikasiko ditu, ondo idazten ikasiko du, baina nik nahi dudana bera zoriontsua izatea da”.

“Prozesua ondo eramanez gero, umeek ahalik eta bizitza normalizatuena izango dute etorkizuneari”

IZAN ZEU ERE ARMIARMA eta EHUNDU SAREA

Euskeraz berba egiteko konpromisoa hartu nahi duzu?

Jendeak zuri euskeraz egitea nahi duzu?

Jantzi “Euskeraz Primeran” insignia eta osatu euskeraren sarea

INTSIGNIAK NON JASO

...eta kitto!n eta Eibarko bi Euskaltegietan

Maiatzaren 31n Urkizun geldituko gara, euskeraren amarauna zenbat handitu den egiaztatzeko.



Iker Oyarbide (berbalaguna):

«Euskara erabiltzeko aukera ezinhobea eman dit Berbetan-ek»

Iker Oyarbide 18 urteko eibartar gazteak ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen Berbetan egitasmoan parte hartzen dihardu. Astean behin elkartzen da bere taldekideekin Deporren, eta ordubete inguru ematen dute euskaraz berba egiten. Ikasketak beti egin ditu euskaraz Ikerrek, baina lagunekin eta etxean euskaraz hitz egiteko aukerarik ez duenez, mintzapraktika taldean eman zuen izena. Ez da damutzen, oso gustora dago eta gainera lagun berriak egin ditu.



– Nola izan zenuen Berbetan-en berri eta zergatik eman zenuen izena?

Udal Euskaltegian ikasten dihardut, EGA prestatzen. Egun batean Berbetan-en berri ematera etorri ziren ...eta kitto!koak, eta horrelako talde baten sartu ezkeru euskara hain tekniko ez den egoera batean praktikatzeko aukera izango nuela iruditu zitzaidan. Ez daukat euskara praktikatzeko beste lekurik. Lagunek euskara lanarekin erlazionatzen dute, badaude euskaraz hitz egiten duten kuadrilak, baina nire ingurukoek ez. Beraz, oso aukera ona ikusi nuen. Gainera, euskaltegian beste berbalagun bat dago nirekin, eta joateko gomendatu zidan. Ezagutza badaukat eta idazteko ez daukat arazorik, ikasi beti euskaraz egin dut-eta, baina hitz-jarioa landu nahi dut, eta ondo hitz egiteko behar-beharrezkoa da praktikatzeara.

– Nolakoa da zure taldea? Non eta noiz elkartzen zarete?

Hasieran lau ginen eta orain beste bat sartu da. Lagunartean egoten gara. Batzuk oso ondo hitzegiten dute, "euskaldun zaharrak" dira, eta beste batzuk gure euskara maila hobetzeko beharra ikusten dugulako gaude hor. Deporren elkartzen gara,

eguenero. Ordubete edo gehiago ematen dugu elkarrekin.

– Zertaz egiten duzue berba?


Gauza arruntez, astean zehar egin dugunari buruz, herrian gertatzen diren gauzei buruz, anekdotak, umeei buruz (batzuk ume txikiak dauzkatelako)... Danetik apurtxo bat. Mahai baten inguruan jartzen gara eta modu oso naturalean jarduten dugu. Lagun kuadrila bihurtu gara. Ni naiz taldeko gazteena.

– Zergatik ikusten duzu beharrezkoa euskara hobetzea?

Euskara gaitasuna sendotu nahi dut. Batzutan trabatu egiten naiz eta ez zait esaldia ateratzen. Gizarte Langintza ikasi nahi dut datorren ikasturtean. Lanerako, batez ere toki publikoetan lan egiteko, beharrezkoa da euskara. Eta, horretaz aparte, nik neuk ondo hitz egin nahi dut, erreztasunarekin, eta ez kostata.

– Zuretzako esperientzia positiboa izan dela diozu. Nola animatuko zenuke jendea?

Lehenengo pausua ematea eta norberaren konfort ingurunetik ateratzea ez da erraza izaten. Hasieran denak ziren ezezagunak... Baina zortea izan dut taldearekin eta euskara praktikatu nahi duten guztiak animatuko nituzke. Oso giro ona dago, eta gainera... doan!



**JOSU
PAGDAGA
2017-V-9**

«Aintzane, Josu joan denean, Ikastolako gelakideok eta kuadrilakoek Pagoen baso bat osatuko dugu: NEGUAN zuen txorikumei kabia eskaintzeko, UDABERRIAN eguzki izpiak iragazteko, UDAN itzala emateko, UDAZKENEAN ortzadarra koloreztatzeke eta URTE OSOAN zu laztantzeko»

Gazte modari eskainitako Fashion Fridays egitasmoa

EL CORTE INGLES-ERA BUELTAN

Gaur ekingo diote El Corte Inglesean Fashion Fridays egitasmoari laugarrenez, gazte modari eskainitako hitzaldi sortarekin. Aurreko edizioetan eginda-koaren bidetik, oraingo honetan ere gazte modako hainbat adituk jardungo dute berbetan, azken joerak zeintzuk diren azaltzeko, aholkuak emateko zein bestelako kontu interesgarrien berri emateko. Gainera, hitzaldietara joandako guztientzat opari bana emango dute. Lehen saioa gaur arratsaldean, 18:00etan izango da, dendako 1. solairuan. Ana Goitia eta Nerea Zusberro blogariek hitzaldia



emango dute eta, horrez gain, Becca makillaje etxekoen azalpenak entzuteko aukera izango da. Eta bigarren saioa hurrengo astean, maiatzaren 19an, egingo da ordu eta toki berean. Egun horretan moda kontuetan aditua den Laura Chamorro kazetari eta aurkezleak egingo du berba eta, ondoren, Too Faced etxekoek makillaje arloko azken joerak zeintzuk diren azalduko dituzte. Saioetan parte hartzea doan da, baina interesatuak aurretik izena eman beharko dute El Corte Ingleseko Emakume Moda sailean (1. solairuan).



Zapatu gauean lau taldek jardungo dute zuzenean Gaztetxean

Aurreko zapatuan Gaztetxe Eguna primeran ospatzen ibili eta gero, asteburu honetarako beste proposamen bat prestatu dute Eibarko Gaztetxean. Zapatu gauean, 22:00etatik aurrera, lau taldek kontzertua emango dute: Rebel Minds (Castello Street Band), Against You (Iruñea streetpunk), Revenja (Barna Streetpunk) eta The Sinners (Oii Makarra Beasain). Sarre-ak 5 euro balio du.



Aurreko zapatuan ospatu zuten Gaztetxe Egunean jokoak egin zituzten Eibarko Bizikleta Plazan, jarraian elektrotxarangarekin jaitsi ziren Gaztetxeraino eta, bazkaldu ondoren, mojito jaia izan zuten terrazan. Eguna bikain amaitzeko Galtzagorriak eta Lokurie taldeen kontzertuaz gozatu zuten. **Maialen Belaustegi**

Martxan dago Gazte Eguneko kamiseta aukeratzeko lehiaketa

Konturatu orduko San Juanak ate joka ditugu eta, urtero bezala, Jaixak Herrixak Herrixandakok Gazte Eguneko kamisetaren diseinua aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Parte hartzeko baldintzak hauek dira: lehiaketara aurkeztu den diseinuan "Jai euskaldun, herriko, parekide eta partehartzailerak", "Jaixak Herrixak Herrixandako" eta, Gazte Egunean aurten 10 urte beteko dituela eta, "10. Gazte Eguna", hiru

esaldi horiek idatzita egon beharko dira. Kamisetarako diseinuak jaixakherrixakherrixandako@gmail.com helbidera bidali beharko dira, maiatzaren 18a baino lehen. Antolatzailearen berbetan, "animatu eta parte hartu, denon kamisetetan zuen diseinua agertzeaz gain, Eibarko denda ezberdinen eskutik otar eder bat irabazteko aukera izango duzue eta. Gainera, aurten finalistak ere sarria jasoko du".

JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO 10. GAZTE EGUNA!

JAI EUSKALDUN PAREKIDE PARTEHARTZAILERAK HERRIXANDAKO

Gazte eguneko kamisetien diseinu lehiaketa!!

jaixakherrixakherrixandako@gmail.com-era bidaldu

Bidaltzeko azken eguna: Maiatzak 18

SARIAK:

1. Eibarko dendan eskutik otar eder bat eta herri bazkarrirako bi tiket
2. Herri bazkarrirako bi tiket

+ osasun gida

Dentistak



Arat
Hartz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hartz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. esk. Tfn: 943 20 18 51



bista eder
clínica dental - hartz klinika

Asko dira gure hartz-klinetara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82



EIBAR HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfn: 943 20 72 17



GASTESI
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplantak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



hartz-klínika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfn: 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGO

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplantak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

9 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfn: 943 20 34 46 Tfn: 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tfn: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia

M^a Jose Ruiz de Porres DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

Logopedak



AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA

Isasi, 17 - 1. esk. 943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa
Disfonia
Ikaste-arazoak

Arreta arazoak
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

Logopedak

Berba
Logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. sasu)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuaretea
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
www.centroamets.com

Coro Ortiz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06

Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA
ANTSIETATEA
AUTOESTIMA
ARAZOAK

EIBAR
URKIZU, 13 - 1.
943 12 02 00

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA
Orbeako dorreetan

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**


Gaztetasunaren iturriaren bila

Gogoratzen duzue banpiroei buruzko istorioetan, nola hauek biktima gazteen odola xurgatzen zuten, horrela urte luzez bizitzeko? Bada gaur egun, asko dira gaztetasunaren formulen bila jarraitzen duten ikerketa taldeak, eta horretarako odolaren osagaiak aztertzen dituztenak. Izan ere, Standforreko ikerketa talde batek erakutsi duenez, ume jaioberrien zilborresteko odolean ugaria den proteina batek, sagu edadetuen memoria eta ikasteko gaitasuna hobetzeko ahalmena du.

Ikerlariak, giza odola aztertu dute hiru adin taldeetan: jaioberrien zilborrestean, 19-24 urte inguruko gazteetan eta 61-82 urte bitarteko pertsona adinekoetan. Horrela, odol hau, 50 urteko ekibalentzia duten sagu edadetuei injektatu diete lau egunetik behin bi astetan zehar. Odol mota bakoitza jaso duten saguen portaera azter-

tuz, ondorioztatu dute jaioberrien odola jaso duten saguek memoria eta ikasteko gaitasuna hobetzen dutela; adibidez, labirintu baten irteera aurkitu edota bizitzeko txokoa eraikitzerakoan. Gainera hauen garuneko jarduera ere handiagoa dela ikusi dute batez ere "hipokanpoan", hau da, ikasteko gaitasuna eta memoria bil-

tzen dituen garuneko eremuan. Gazteen odola jasotako saguek, hobekuntza erakusten dute baina neurri apalago batean eta pertsona edadetuen odola jasotakoek aldiz, ez dute inongo onurarik agertu.



Odoleko proteinen azterketa sakonago batean, TIMP2 proteina identifikatu dute hobekuntza hauen eragile bezala. Etor-kizuneko helburua, proteina honen jarduera mekanismoa aztertzea da, Alzheimerra eta beste gaixotasun neurodegeneratiboekin erlazionatuta dagoela bait dirudi, eta beraz,



iraia muñoa
IKERTZAILEA

hauen progresioa gelditzeko jomuga terapeutikoa izan daitekeelako. Honen harira, ikerketa taldeak badu proiektu bat martxan, non Alzheimerra duten gaixoak, gazteen odolarekin tratatzen dituzten baina oraindik ez dute emaitzarik argitaratu eman.

ALBISTEAN GEHIAGO SAKONDU NAHI DUENAK, "NATURE" ALDIZKARI ZIENTIFIKOAN ESKURAGARRI DU ARTIKULUA (DOI:10.1038/NATURE22067).

Sentitzen dut

Zer egiten dugu gurasook ikusten ditugunean gure seme-alabeek beste ume bat jotzen, oihukatzen edo/eta baztertzen?



iratxe vazquez
PSIKOPEDAGOGOA

"Eskatu barkamena!" edo antzeko eskaera bat egiten dugu. Ez dugu ordea sentitzen dutenaz azalpenik eskatzen. Barkamena eskatzearekin soilik, barkatua izateko eskubidea ematen digu. Barkamena eskatzea protokolo hutsa bihur daiteke. Baina berdin jokatzeko gure hanka sartzen dugunean? Gure seme-alabei barkamena eskatzen diegu?

Sentitzen dugula adieraztea, berez ez da erreza, gehienetan oso zaila egiten zaigu. Guri, helduei, kostatzen bazaigu, ba imajinatu gure txikitxoie! Umeak direnez, pentsamendu egozentrikoan daude, eta ez dute ulertzen barkamena sentitzearen garrantzia. Hau horrela izanik, lehenbailehen bere akatsak onartzen, sentitzen dutela adierazten eta jarrera hobetzen ikasi beharko dute. Guk, gurasook, lan horren ardura izan-

go dugu gure seme-alaben garapen pertsonala eta emozionala egokia izatea nahi badugu.

Ume batek akatsak egiten dituela onartzea, berak duen jarrera mingarria dela jakitea edo pertsona orok huts egiten dugula ikustea ezinbestekoa izango da bere garapena aberasteko.

Guraso gisa, gure seme-alaben ikaskuntza prozesuan inplikaturik gaudenez eta euren garapenean eragin zuzena dugunez, gure betebeharra barkamena eskatzen irakastea izango da. Baina nola? Alde batetik, eredia izaten, hau da, zerbait desegoki egiterakoan edo esaterakoan sentitzen dugula adieraziko diegu. Eta bestetik, akatsak zuzentzen eta jarrera aldatzen lagunduko diegu.

Bere akatsak onartzen eta barkamena eskatzen dakiten umeek arazoei aurre egiteko gaitasun



handiagoa izango dute, euren harreman pertsonalak osasuntsuagoak izango dira eta, noski, euren garapen pertsonala eta emozionala egoki garatuko da.

Hanka sartzen dugunean sentitzen dugula adierazten badugu gure seme-alabei barkatzeko eta barkamena eskatzeko beharra jakinarazten diegu. Beraz, barkamena sentitzea kanpo eta barne askatasunaren gakoa izango da.

Gehitu (Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkarte) Andretxean dago apirilaren 18az geroztik. 20 urteko ibilbidea dauka Gehituk eta orain Eibarren jarri du bere hazia. Hemengo informazio puntua izango bada ere, Gehituk hainbat ekintza antolatzeko nahia dauka eta, besteak beste, urtero Gay Festa antolatzea da euren asmoa. Hilaren 17an LGTBfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatuko da eta gaiaren inguruko hainbat laburmetraia eskainiko dira 18an, Portalean, 19:00etan.



JESSICA OTS (Gehitu):

“Jendeak informazioa nahi du, baina ez daki nora jo”

– Gehitu Andretxean dauka-gu apirilaren 18az geroztik. Zein asmorekin iritsi da Eibarrrera?

LGTBI informazio puntua izateko, batez ere. Donostiara joan beharrean, Eibar eta inguruko herriei zuzendutako zerbitzuak eskainiko ditugu. Gero, edozein galdera edo zalantza izanez gero, hona etorri eta nik Gehituko koordinatzailearekin kontaktuan jarriko dut jendea. Bestetik, badaukagu jarduerak prestatzeko asmoa ere. Apirilaren 30ean, adibidez, LGTBI afaria egin genuen Ipur sagardotegian, ekainaren 28an standa jarriko dugu Untzagan eta beste hainbat jarduera egiteko gogoarekin gaude. Donostia inguruan egiten diren ekintzetara joateko erraztasunak eskainiko ditugu hemendik baita ere: Jareñoko aratosteetarako sarrerak saldu eta abar.

– 20 urteko ibilbidea dauka Gehituk. Gauzak asko aldatu dira denbora honetan?

Orain dela gutxi egin naiz Gehituko bazkide, baina aurretik izan dut kontaktua elkartearekin. Uste dut orain lehen baino ekintza gehiago egiten direla. Gauza batzuk hobera joan dira eta beste batzuk txarrera. Jende askok osatzen du elkarte, 300 pertsona inguruk, eta denetarik dago.

– Eibarren aste gutxi daromatuzue. Hurbildu zaizue jendea?

Afarian 6-7 eibartar batu ziren, nahiko ondo, baina jende asko oraindik ez daki hemen gaudela.

– Jendeak, hemen, badaki Gehitu zer den?

Egia esan, askok ez.

– Zein hutsegite dago hor?

Orain arte Donostian bakarrik egon dela. Han bai da ezaguna, baina hortik kanpo gehiago kostatzen da. Hemen ez da kalean ikusgai egon eta ez baduzu ikusten, ez zara enteratzen. Jendeak informazioa nahi du, baina ez daki nora jo eta interneten begiratzen du.

– Ze motatako informazioa eskainiko duzue?

Egingo ditugun jarduerak, kolaborazioak, prebentzio arloan lan sakona egingo dugu, historia ere landuko dugu, jakin beharreko telefono zenbakiak emango ditugu... denetik.

– Zein informazio da jendeak gehien eskatzen duena?

Aktibismo arlokoa eta jaien ingurukoa. Festek mundua mugitzen dute (barreak). Batzuetan ekintza bat egitera zoaz berdintasuna eta abar erreklamatzeko, eta jendeak festa nahi du.

– Horrek ez du, agian, funtsezko mezua arindu edo ezerezten?

Batzuetan bai, baina batzuk festa bakarrik ikusten dute, gazteek batez ere. Badaude, noski, festatik kanpo kausaren alde egiten dutenak. Denak biltzeko ekintzak egin behar dira, bai gauzak erreklamatzeko, bai gozatzeko. Bi jarduera ezberdin bi toki ezberdinetan egingo gero, jendearen %70 festara joango da, argi daukat.

– Gauza asko dago egiteko LGTBI mugimenduari inguruan?

Bai. Oraindik eraso asko dago, toki askotan gaizki ikusten dira pertsona homosexualak, guraso askok ere arazoak dituzte seme-alabak homosexualak direla onartzeko eta arazoak jartzen dituzte hauek ezkontzeko orduan, umeak adoptatzeko orduan ere arazoak izan daitezke... Berdinketa behar da arlo legalean, baina gizarte arloan ere lan egin beharra dago. Gizartea hezitu behar da horren inguruan.

– Eskola eta gurasoekin elkar eragiten duzue?

Gehitukoak eskoletara joaten dira berba egin eta hitzaldiak eskaintzera, baina Donostitik bideratzen dute hori. Hemen informazio puntua eskainiko dugu, baina horrelako gauzetarako erraztasunak jarriko ditugu eta pixkanaka zerbitzu gehiago eskaintzeko asmoa daukagu.

Urki taldeak 1. Erregional mailako Kopa fasea irabazi zuen

Aurreko asteburuan amaitu zen Ligako bigarren fase horretan eibartarrak nagusi izan ziren eta Soraluze bigarrenari zazpi puntuko aldea atera zien. Azken jardunaldian Urkik 5-3 irabazi zion Unben jokatutako partiduan. Horrez gain, jubenetako 1. Mailan Urki B-k Oho-rezko Mailara igotzea lortu zuen Zarautzen 1-2 irabazi ondoren, hori liga amaitzeko bi jardunaldi falta direnean. Sailkapenean eibartarrak Amara Berri A-rekin daude berdinduta. Eta kadeteen Oho-rezko Mailako Urkik, bestalde, Laz-

kaorekin bana berdinduta mailari eustea lortu zuen.

Urkiko nesken taldeek ere ibilbide bikaina egin dute eta, eaterako, infantil mailako txapeladunen ligan jokatu duen Urki A-k lehen postua galdu zuen azken jardunaldian. Unben jokatutako partiduan Añorga B sailkapeneko hirugarrenak 1-3 irabazi zion eta horrek ekarri zuen eibartarren atzetik zeterren Zumaiako, bere neurketa irabazita, aurrea hartzea eta liga aurretik amaitzea, puntu bateko aldeaz. Orain Gipuzkoako txapelaren bila jardungo



Infantil mailako lehen taldeak txapela irabazteko aukera du.

du, asteburuan jokatuko duen finalerdietako lehen partidua erekin hasita. Urkiko talde horrek Errenteriako Touring-ek antolatzen duen torneoaren bigarren edizioa bereganatu

zuen aurreko astean. Hamasei taldek hartu zuten parte eta eibartarrak finalean penaltietan nagusitu ziren; horrez gain, Marta izan zen goleatzaile nagusiena.



Tenisean jarduteko aukera dago Kirol Patronatoarekin

Maiatzaren 31ra arte eman ahal izango dute izena Uda 2017 egitarauaren barruan Kirol Patronatoak antolatu duen tenis ikastaroan parte hartu nahi dutenek. Ikastaroa 2010ean eta aurretik jaiotakoentzat da eta ekainaren 26tik uztailaren 21era emango dira Unbe kirolgunean. Ordubeteko iraupena izango dute eta hiru ordutegi aukera daitezke, hirurak ere goizez eskainiko direnak: 09:45etik 10:45era, 10:45etik 11:45era eta 11:45etik 12:45era eskainiko dituztenak.

Amañako gaztetxoek pilota txapelketa abian eta Udaberriko bi partidu gaur Astelenan

Gaur 19:15ean hasiko den pilota jaialdian Astelenak afizionatu mailako partidu bi hartuko ditu, biak ere Udaberri Txapelketa barrukoak. Infantil mailako norgehiagokan, Klub Deportiboko Caminak eta Azkargortak osatutako bikoteak Oñatiko Aloña Mendiko ordezkariak izango ditu aurkari eta, jarraian, txapelketa bereko kaiolaren barruko partiduan, helduen mailako Gaztañaga Azkoitiko Juaristiri irabazten saiatuko da lau eta erdiaren barruan. Horrez gain, Udaberri Txapelketan

binaka parte hartzen duen infantil mailako bigarren bikoteak, Tajuelok eta Sanchezek osatutakoak, Zestoan izango du lehia, bertako Gurutzeaga frontoian gaur 19:00etan hasiko den partiduan.

Bestalde, Amañako Pilota Txapelketa ere abian da Deporrek pilotari gazteen artean. Hainbat neska-mutil izan ziren lehian zapatuan jokatutako partiduetan eta kiol modalitate horretarako dituzten bertuteen erakustaldia egin zuten, ikusleen gozamenerako.



Pilota zaletasuna indarra hartzen doa gazteen artean, Amañako txapelketan ikusi moduan.

M^a ANTONIA REMENTERIA OSTOLAZA

I. Urteurrena: 2016-V-16



"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN"

Bere aldeko MEZA ospatuko da maiatzaren 14an (domeka), eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokian.



Eibarrek Xixongo Sporting hartuko du Ipuruako denboraldiko azken partiduan

Domekan jokatuko den 1. Mailako ligaren azkenaurreko jardunaldian Xixongo Sporting-eko milatik gora zaletu etorriko dira gurera euren taldeak bizi duen egoera larria iraultzeko itxaropenarekin. Saikapenerako zeozer jokoan duten talde guztien partiduak ordu berean jokatu dira, hau da, 20:00etan; eta horietako bat izango da Eibarkoak eta asturiarrak protagonista izango duena. Eibarrek gaur egun duen 8. postuari eutsi nahi dio, oso gertutik jarraitzen baitiote Espanyolek (puntu bakarrera)

eta Alavesek (hirura). Sporting, bestalde, oso egoera larrian dago eta 2. A Maila gertuago du gaur egun diharduen 1.a baino: bi jardunaldiren faltan Leganesek sei puntu ateratzen dizkio eta A Coruñaiko Deporrek bost.

“Eibarren Lagunak” Jon del Portilloekin

Eibarrek munduan zehar dituen zaletu berezietako bat da Bartzelonako Jon del Portillo eta etzi “Eibarren Lagunak” taldekoek hainbat ekitaldi prestatu dute Eibarrera etorri-



ko dela aprobetxatuta. Gaixotasun larria du Jonek eta gurdun aulkian mugitzen da edonora. Eibar 2. B mailan zegoenean egin zen talde armaginarekin jarraitzaile eta, berarekin bat eginez, bere familia guztia ere “Eibarren Lagunak” dira. Untzagan eguerdiko 13:00etan bildu ondoren, txikiteoa egingo dute erdigu-

nean eta 14:30ean bazkide hain bereziaren omenezko bazkaria egingo dute Hotel Unzaga Plazan. “18:00etan Ipuruara igoko dugu eta 19:30ean Amaia Gorostiza Eibar KEko presidentea Jon hartuko du eta azken honek aukera izango du Eibar KEko jokalaria agurtzeko partidua hasi aurretik”, taldekoek diotenez.

Katu Kalek ez du maila igo puntu bakarrarengatik

Aurreko asteburuan Ipuruan 74-80 galtzeak laga zuen Eibarko saskibaloia maila igo barik eta hurrengo denboraldian ahalegindu beharko da berriro probintziako 2. Maila lortzen. Iñaki Sanchezek zuzentzen duen Katu Kalek partidu oso serioa egin zuen Donostian eta baita Internacional taldea gainditu; baina markagailuak partidu amaieran erakusten zuen 54-59 ez zen nahikoa izan lehen partidukoari buelta emateko. Puntu bakarrak, hau da, biko jaurtiketa baten erdiala laga du Katu kale saririk gabe.



Somos Eibarrek seigarren postuan amaitu du Liga

Eskubaloiko gure herriko talde nagusiak, aurreko zapatuan Zaragozako Dominicos-i Ipuruan 29-28 irabazita,, saikapeneko 6. postu bikainean amaitu du 1- Maila Nazionaloko liga, kontuan izanda batez ere urteetan taldean izandako jokalaria laga zutela eta harrobitik irteerako gazte asko igo direla lehen talde horretara. Azken jardunaldiko beste partiduetan, Gipuzkoako 1. Mailako Haritza 26-33 gailendu zitzaion Oñatin Izarraitz - Aloña Mendiri Kopa lehiaketan.

Lbilaldia
Mungian
maiatzaren
28an
egunero
alkarregaz

IRTEERA
09:30ean
Ego-Gainetik

AUTOBUS
9€

19:00etan
BUELTA

ZERBITZUA

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 | www.funeuskadi.com


Euskadiko Lehen Ehortze Taldea | **GRUPO Funeuskadi**

Txapeldunen arteko buruz-buruko finalerdia jokatu da domeka arratsaldean Astelenan

Binakako gaur egungo txapeldunek nor baino nor jardungo dute domekako Astelenako jaialdiko partidu nagusian 1. mailako buruz-buruko finalerako txartelaren bila. Irribarria gaur egungo txapeldunak beste urtebetez gorritz jantzita jokatzea bilatuko du binakako txapela lortzeko lagun izan zuen Rezusta bergararraren aurka. Gaur egungo kainolari handien arteko lehia izango dela aurrikusten denez, Peñagarikano pilota-hautatzaileak ere ondo neurtu beharko du materialaren jokaera. Partiduak, beraz, interes berezia du: aurrez-aurre gaur egungo txapelduna eta finalerdietan dagoen atzelari bakarra, zeinek atzerago jo lehia bizian arituko direlako.

Jaialdia osatzeko, Retegi Bi - Tolosa eta Jaka - Jaunarena bikoteen artekoa izango da jaialdia hasteko eta amaizteko. Bestalde, Dario - Irusta eta Ugalde - Merino bikoteek euren onena emango dute, nor baino nor.

Aspe enpresak orain dela 19 urte bere ibilbidea hasi zuenetik, txapelketa handiko beste zortzi finalerdi jokatu dira Astelenan: 1999an, Elgoro 22, Lasa 14; 2001ean, Eugi 22, Rai 11; 2002an, Barriola 22, Agirre 10; 2003an, Beloki 21, Olaizola II.a 22; 2007an, Eugi 11, Barriola 22; 2010ean, Irujo 22, Patxi Ruiz 6; 2012an, Irujo 22, Idoate 18; eta iaz, Bengoetxea VI.a 10, Irribarria 22. Irribarriak finalerdietarako txartela



Azken aldian erakutsitakoaren arabera, txapeldunek ondo neurtuko dute Astelena.

eskuratu zuen Katedralean orain dela 15 egun Artolari irabazita Abel Barriolaren azkenurreko partiduan. Badago jaialdi berezi horretarako erreserbak egiteko aukera 661 259 009 telefono zenbakira deituta.



Astigarraga nagusi izan zen Soralezeko bolatokian.

Migueleko Xabier Loiolak eta Muñoz liderrak. 44 bolari izan ziren parte hartzen, San Andresen jokatuako aurreko tiraldian baino 14 gutxiago. Soralezeko auzoan jokatuako tiraldian, bestalde, Eibarko ordezkari bikain moldatu zen eta, Astigarraga irabazlearen ondotik, Sergio Rodriguez eta Alex Campos taldekideak sailkatu ziren, beste hiru tiralarirekin berdinduta. Bihar Bergarako San Joxepeko bolatokiak hartuko du txapelketako zazpigarren tiraldia.

Asola Berrikoak gogotsu liderraren atzetik Gipuzkoako hiru txirlo txapelketan

Bittor Astigarraga San Andres bolatokian eta Ganix Rodriguez Lasturren, eibartarrak nagusitu ziren Gipuzkoako 48. Hiru Txirlo bolo txapelketan jokatuako azken bi jardunaldietan. Hala ere, Floreagako Jose Muñoz da liderra sailkapen orokorrean, Asola Berrikoek amore emateko prest ez daudela erakutsi duten arren. Aurreko zapatuan Lasturren Ganix Rodriguez izan zen bakarra zazpi txirlo botatzen eta seirekin jarraitu zioten San



Ganixen estiloa nabarmendu zen Lasturko tiraldian.

Infantil mailako Mogel Ikastolako nesken atletismo taldeak Gipuzkoako txapela jantzi zuen



Aurreko domekan Ordizian jokatuako Eskola mailako taldeko Gipuzkoako txapelketan Mogel Ikastolako infantil mailako nesken taldea

onena izan zen eta urrezko domina bereganatu zuen. Inma Urkiolak gidatzen duen taldeak lortutako garaipenaz kanpo, erreleboetako proban hirugarren gelditu ziren. Bestalde, kilometroko martxako proban Enara Magunazelaia nagusitu zen eta, urrezko domina horretaz aparte, Imanol Egidazuk zilarrezkoa ekarri zuen eta Pello Osorok brontzezkoa. Atletismoak badu etorkizunik Eibarren; ez dira azken lorpenak izango.



Ikastolako atletak podiumaren gorenean. Ezkerrekoan, Inma Urkiolarekin.

Garajes Garciak Kirolbet Saria irabazita hasiko da foball zaletuaren Kopa txapelketa

Aurreko zapatuan Kirolbet.es Sariaren denboraldi honetako edizioa jokatu zen eta Garajes Garcia.com Eibarko Ligako irabazleak 3-1 irabazi zion Murruka Ventanas Rada Ermuko foball zaletuaren txapelkunari. Puentek, Borjak eta Ikerrek sartu zituzten eibartarren golak eta Aitorrek Ermukoena lortu zuen.

Asteburu honetan Kopa torneo hasiko dute honako zazpi partidurekin (ohikoa denez, lau bihar jokatu dira eta beste hirurak etzi): zapatuan, 09:00etan, Ipur Sagardotegia - Bar Areto eta Durango - Alkideba; 10:30ean, Azkena Adahi - L.P. Tankemans; eta 12:00etan, Slow XOK - Kontent. Domekan, bestalde: 09:00etan,



Garajes Garciak Kirolbet Saria ekarri zuen beste behin Eibarrera.

Bar Arkupe - Esmorga; 10:30ean, Sporting - Bar EzDok; eta 12:00etan, Garajes Garcia - Bar Txoko.

Deltecoko triatloilariek kostaldean lehiatu zuten aurreko asteburuan

Zapatuan Bermeon izan zuten hitzordua eta domekan Deban. Pello Osoro gure ordezkari onenak Bizkaikoan bigarren amaitu zuen, baina hurrengo egunean emaitza hori biribiltzea lortu zuen Deban irabazitako txapelarekin. Delteco Eibar Triatloi Taldeak beste sei lagun aurkeztu zituen Bermeon (Txomin Osoro, Maialen Zamakola, Ioseba Tamayo, Iñaki Conde, Jesus Sanchez eta Jose Mari Artetxe) eta hirukote baten (Gonzalo Saez, Roberto Gartzia eta Jonatan Alustiza) lagundu zion Pellori Debakoan.



Pampo gogoratzeko maratoiaren 7. edizioa jokatu zen Aixolan

Aurreko zapatuan eta urterokoari jarraituta Pamporen ome-nezko maratokia jokatu zen Aixolan eta, aukeraz baliatuz, orain dela gutxi hil zen Manolo Mendez Aixola Maratloi Taldeko partaide ere gogoratu zuten han bildutakoek. Goizeko 08:00etan hasi eta eguerdiaren bueltan amaitu zuten proba bertan bildutako 20 bat lagunek. Probaren amaieran lore-sortak eskaini zizkieten omendutako bien familiei.

II. Gin Tonic lehiaketa

Asteburu honetan
MAIATZAK 12, 13, 14

Probatu eta bozkatu!
asteburuko egonaldi baten
zozketan sartuko zara

Finala:
Maiatzaren 19an, 20:30ean
Untzaga plazan, OIHAN VEGA Dj-rekin

Parte-hartzaileak:

Amesti, Ametsa, Arkupe, Birjiñape, Chic, Guridi, Kontent, Koskor, Kultu, Lau Bide, Maixa, O' Jays, Ongi Etorri, Slow, Isasi, Sutondo labaderokua, Txoko, Xok, Zubi-Gain

Euskeraz!
primeran!



**M^a LUISA
BLASCO**
(idazlea)**“Oso pertsona irudimentsua naiz”**

Maria Luisa Blascok pintzelak albo batera utzi eta teklak astindu ditu ‘Retrato enigmático’ nobela argitaratzeko. Ez da margolari eibartarrak sortu duen eleberri bakarra, baina bai argitaratzen duen lehena. Aker, sorginak, Mari eta, horren inguruan, Manuel gizakiaren eta Isabela lamiaren arteko amodio istorioa batzen ditu Soraluzen bizi den artistaren lanak. Maiatzaren 16an, martitzena, bere liburua aurkeztuko du Mateo Guilabertekin batera 19:30etan Portaleko areto nagusian.

– Anbotoko Dama margotzen sortu zenuen liburua. Nola, ba, horrela?

Trilogia bat egiten nengoen Gaueko, Anbotoko Dama eta Artzaina eta Lamiaren inguruan, idatzi dudan lehen nobela mitologikoan inspiratuta. Batzuetan, margotzen zaudenean, estasira iristen zara nahi duzuna lortzen duzunean. Momentu horretan mihiseaz harantzago joan nintzen eta hor erabaki nuen istorioarekin jarraitzea. Anbotori, Anbotoko Damari eta bestelako pertsonaiei bizia eman nien.

– Zer da hortik irten dena?

Erraldoien artean mugitzen da eleberria. Urkiola eta Zugarramurdiren artean kokatzen da; hau da, Marik ordezkatzeko duen alde zuritik, akelarreek irudikatzen duten alde beltzera. Pertsonaia mitologiko asko agertzen dira, eta gizaki bakar batzuk ere bai.

– Non dokumentatu zinen mitologiaren inguruan?

Barandiaranekin dokumentatu nintzen, horrela gomendatu zidatelako Soraluzeko hainbat pertsona nagusik. Bere lana ozeanoa bezain handia da eta liburuari ondo egokitzen zaizkion pertsonaia hartu nituen. Asko zaindu dut pertsonaia bakoitzaren rola errespetatzea, mitologia delako, eta Barandiaranen lanetan agertzen dena zintzo jarraitzen dut.

– Nondik datorkizu mitologia zaletasuna?

Oso pertsona irudimentsua naiz. Margotzerakoan ere lan surrealista eta figuratiboak egiten ditut.

– Nola eman duzu margotik literaturarako jauzia?

Idaztea ez zegoen nire planetan, bai-

na erakusketa batean arte kritikari batek nitaz galdetu zuen nire margolanak atentzioa deitu ziolako eta hor hasi zen dena. Margotzeko orduan zein estilo nuen galdetu nion, nire burua besteekiko ezberdina ikusten nuelako, eta esan zidan nik egiten zuena lirikoak zela, pintzela duen poeta nintzela eta munduan estilo horretako gutxi zuela. Orduan, pentsatu nuen poesia, margotzea baino, idazteko errazagoa izango zela. Egun batean, bidegorrian pasioan nebilela, errimatutako esaldiak burura etortzen hasi zitzaizkidan. Etxera heltzean errima horiek idatzi nituen eta hori izan zen nire ibilbide literarioaren hasiera. Poesiarekin hasi nintzen lehenik eta prosara egin nuen jauzia gero, eta dagoeneko zortzi nobela luze idatzi ditut.

**Gaur kontzertua emango du
Debabarreneko Orkestra Sinfonikoak**

Gaur 20:30ean Debabarreneko Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du Coliseo antzokian. Gaurko emanaldia zuzentzen Iñigo Cearsolok jardungo du. Elgoibartar hau orkestrako kide izateaz gain



orkestra zuzendaritza ikasten dihardu. Jose Miguel Laskurain orkestraren sortzaileak


azaldu duenez, “orkestra eratzen hasi zen unetik oso argi genuen lehentasunetako bat gure eskualdeko musikariak ezagutzera eman eta euren garapenean laguntzea izango zela. Eta asmo horrek berdin-berdin eragiten die zuzendariari. Beraz, zuzendari izateko ikasten ari den musikoari emanaldia zuzentzeko aukera eskainita, gaurko kontzertuan arlo hori lantzeko aukera izango dugu”.

**Guraso berbalagunak Urretxuko Erle Museoan**

Joan den zapatuan Gurasoak Berbetan egitasmoko guraso eta ume talde eder bat egon zen Urretxuko Aikur Erle Museoan. Hiru orduko bisitan erleei buruzko gauza ugari ikasi zituzten, amaieran argizarizko kandelak egiteko aukera izan zuten, eta horrez gainera, ezti-pote baina ere eraman zuten etxera. Museoko bisitaren ondoren aldamenen dagoen Santa Barبران bazkaldu eta pozarren itzuli ziren Eibarrera.

“Tierra de adopción” liburua aurkeztuko dute gaur Portalean

Gaur arratsaldean, 19:00etan, Yolanda del Nozal idazlearen “Tierra de adopción” liburua aurkeztu dute Portalean, Juan San Martin liburutegiak antolatutako ekitaldian. Liburuaren egilea aurkezteko ardurua Juan Ortega, Eibarko Antzerki Jardunaldietako zuzendari artistikoak izango du. Gaur egun Bilbon bizi den idazleak haurtzaroa eta gaztaroko urte batzuk Eibarren eman zituen eta, Unibertsitate Laboralean ikasten zegoela, Narruzko Zezen antzerki taldeko kide izan zen. Liburuan, protagonista nagusiak Palentziatik Eibarrera etortzea erabaki zuten bere gurasoak dira eta kontakizunean bidaia horri lotutako esperientziak bildu nahi izan dituzte, hortik liburuaren izenburua.



Utah-tik Eibarrera euskal dantzak ikastera

Euskal dantzak ikasteko prest, domeka arratsaldean ailegatu zen Eibarrera Salt Lake City-tik (Utah, AEB) 11 dantza ikasle osatutako taldea. Utah-ko Unibertsitatean dantza graduko ikasleak dira eta astebete euskal dantzak ikasten ibiliko dira Eibarren, Bilbon eta Errenterian. Gipuzkoako eta Zuberoako dantzak, eta fandango eta arinarina, horiek dira landuko dituzten errepertorio nagusiak. Dantzan.com-en koordinaziopean, eta Dantzan Ikasi programaren babesarekin, Kezka, Dantzerti, Argia-Ikerfolk, Aiko taldea eta Bilbao Musikako irakasleak arituko zaizkie eskolak eskaintzen. Ikasi dutena erakusteko, emanaldi pedagogikoa egingo dute gaur 20:30ean Portaleko areto nagusian eta nahi dutenentzat sarrera irekia izango da.



Barixakuak Jolasian kalean

Eguraldiak laguntzen badu Urkizuko parkean egingo da maiatzeko Barixakuak Jolasian ekimena, datorren ostiralean, maiatzak 19. Gurasoak Berbetan egitasumoko guraso eta seme-alabentzat ...eta kitto!-k hileru antolatzen duen ekimena oraingoan irekia eta doakoa izango da. Arratsaldeko 17:30etik aurrera ginkana eta jolasekin primeran pasatzeko aukera izango da.

TALO ikastaroa



Talo ikastaroa hilaren 24an Kulturalen

Maiatzeko azken asteburuan ospatuko den 52. Euskal Jaiaren harira bi orduko talo ikastaroa antolatu dute Arrate Kultur Elkarteak. Klasea maiatzaren 24an izango da, 18:30etik 20:30era eta parte hartu nahi duenak aurretik izena eman beharko du, bulego ordutegian 943 202 299 telefono zenbakira deituta edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita.

Gatazka eta jazarpen egoeren inguruko saio interesgarria

Izaskun Etxabe psikologoak hitzaldia eman zuen aurreko asteko eguenean, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik egindako saioan. Seme-alaba nerabeak dituzten gurasoei lagungarriak gerta dakieken gaiei heldu zien adituak, gazteen arteko gatazka eta jazarpen egoerei arreta berezia eskainita.



Euskal Jaiko bazkari eta afarirako txartelak

Maiatzeko azken asteburuan izango den 52. Euskal Jaiaren barruan Untzagako karpan egingo diren kantu afarirako (27an, 21:30ean) zein bazkarirako (28an 14:30ean) txartelak salgai daude Deporren. Maiatzaren 25era arte egongo da erosteko aukera. Ume, ikasle eta langabetuek 10 euro ordaindu behar dituzte eta beharginek, berriz, 12 euro. Bietan emango duten menua osatzeko bertoko baserrietako produktuak erabiliko dituzte.



"Zugastitik Oteizara ibilbide dantzatua" gaur Eskolarteko Antzerki Erakusketarekin

Debabarreneko Eskolarteko 33. Antzerki Erakusketaren hari-ara antolatutako egitarauaren barruan, gaur arratsaldean emandako berezia egingo da herriko kaleetan: "Zugastitik Oteizara ibilbide dantzatua" izenburuari jarraituta eta Josu Mujikak zuzenduta, Biraka Dantza Taldeak ibilbide dantzatua hasiko du 19:00etan, El Corte Ingles parean dagoen "Formen Dantza" eskulturaren aldamenean. Handik Untzagaraino joango dira dantzariak, jubilatutako etxearen aldameneko horman dagoen Baroja Collet-en "Cruce de miradas" izeneko dagoen tokian berriz dantzan egin eta, jarraian, ibilbidea anbulatorio pareko parkean, Jorge Oteizaren "Txopitea eta Pakea" eskulturaren inguruan 20:00ak aldera amaitzeko.

Astelehenean, berriz, egitarauan gaztelaraz dagoen lan bakarra taularatuko du Valladolideko Teatro Teloncillo taldeak: "Capucita. Lo que nunca se contó..." 15:00etatik aurrera ikusteko



Josu Mujikak zuzentzen duen Birakak ekarriko du ikuskizuna. Argazkian Elgoibarren egindako erakustaldi batean.

aukera izango da Hezkuntza Esparruko antzokian. Eta eguenean, berriz, toki eta ordu berean antzerkia eta musika batzen dituen lana eskainiko dute Madrilgo Dolce Clave Duo taldekoek: "Dolce Clave Kids. Violinoren eta Guitarrillaren abenturak".

Eguaztenean banatuko dituzte Ipurterre lehiaketako sariak

Eguaztenean eman zituzten ezagutzera ...eta kitto! Eukarra Elkarteak antolatzen duen 23. Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako irabazleen izenak: Irene Alonso Bravo (LH 1-2, La Salle Isasi), Elene Arrazola (LH 3-4, J.A. Mogel ikastola), Uxue Baroja (LH 5-6, San Andres herri ikastetxea), Ane Treviño (DBH 1-2, Mogel Isasi DBHI) eta Beñat Laskurain (DBH 3-4, Mogel Isasi DBHI). Antolatzaileen berbetan, "epaimahaiakoez ez dute lan makala izan jasotako ehundaka lanen artean irabazleak hautatzen. Zorionak, beraz, irabazle guztiei eta eskerrik asko parte hartu dutenei, baita epai-mahaia osatu duten guztiei ere". Saritutako ipuinak hila-bete honetako Txikitto! aldizkarian argitaratuko dira eta sari banaketa ekitaldia, berriz, datorren eguaztenean izango da, 10:00etan Hezkuntza Esparruko antzokian.



Argazkiekin martxa betean

Deporreko argazkilariek antolatutako Argazkilaritza Maiatzean egitasmoak kalitate goreneko irudi ikusgarriak ekarri dizkigu oraingoan ere. Maiatzaren 2az geroztik zabalik zeuden bost erakusketei, aurreko barixakuan inauguratutako beste lau gehitu zaizkio: Topalekuan ikusgai dagoen Einer Rodriguez Ponceren "Panorámicas: Eibar-Euskadi" eta Portalean aldi berean ikus daitezkeen "Memories d'un fotògraf - Agusti Centelles (1909-1985)", Asier Garagarzaren "Uneak" eta CVCE Photo Nazioarteko Mendi Argazkilaritza Txapelketako lanena. Bihar, berriz, Jon Gorrospen eskutik egun osoko tailerra egongo da martxan Portalean. Eta eguenean, 19:30an, Gabriel Brau Gelabert argazkilariak "Vision fotográfica y lenguaje visual" liburua aurkeztuko du Portalean, Bakarne Elejalde eta Jose Luis Irigoien Deporreko argazkilariek lagunduta.

www.kolorlan.com

667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarara,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.**

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

Barixakua 12

FASHION FRIDAYS

18:00. Modari buruzko hitzaldia: Ana Goitia eta Nerea Zusberro blogariak eta Becca makillaje etxea. Izen-ematea (doan) Emakume Moda sailean. El Corte Inglesean.

INAUGURAZIOA

19:00. Kantabriako Etxekoen Ipuruako bolatokiarena. Ipuruako bolatokia.

LIBURU AURKEZPENA

19:00. "Tierra de adopción", Yolanda del Nozalen liburu aurkezpena. Portalean.

IBILBIDE DANTZATUA

19:00. "Zugastitik Oteizara ibilbide dantzatua", Biraka Dantza Taldearen eskutik. Zugastiren eskulturari hasi eta Oteizaren eskulturaraino (anbulatorioa) dantzan joango dira. Debabarreneko Eskolarteko 33. Antzerki Erakusketaren barruan.

KONTZERTUA

20:30. Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa, Iñigo Cearsolok zuzenduta. Coliseoan.

Zapatua 13

TAILERRA

10:00/14:00 eta 16:00/20:00. Argazkilaritza Maiatzean: Argazkilaritza tailerra, Jon Gorosperen eskutik. Portalean.

AURKEZPEN FOROA

10:30. Herritarron Neurria. EH Bilduren prozesu eratzaileren inguruko foroa, Larrantz Ugarte eta Unai Larreategiren eskutik. Arrate Kultur Elkartearen.

BERTSO BAZKARIA

14:30. Arrajolape kultur elkarteak antolatuta. Bertsolariak: Manu Goiogana eta Nerea Ibarzabal. Gai-jartzailea: Desi Magro. Legarre Gain elkartearen.

MARCAN HUELLA

19:00. 3. Marcan Huella Ongintzazko Jaialdia: dantzak, musika, emanaldiak, zozketak... Dirua jaberik ez duten txakurrei laguntzeko izango da. 6 euro. Coliseoan.

KONTZERTUAK

22:00. Rebel Minds (Castelló Street Band), Against You (Iruñea Street Punk), Revenja (Barna Street Punk) eta The Sinners (Oi! Makarra Beasain). 5 euro. Eibarko gaztetxean.

Astelehena 15

HITZALDI-KONTZERTUA

11:30. "Baga, Biga, Higa" hitzaldi-kontzertua, Mikel Marquez eta Eñaut Elorrietarekin. DBH 4-ko ikasleentzat. Coliseoan.

SAN ISIDRO JAIA

10:00. Meza, bertsolari eta trikitilariekin. Ondoren prozesioa eta aurrakua, Kezka Dantza Taldearekin. Jarraian txakolina, gazta eta aire librean hazitako basatxerri ezaugarria duten txerriekin dastaketa.

12:30. San Isidroetako XV. Aizkolari txapelketa. Tartekaturik, harrijasotzaileen saioa.

14:30. Bazkaria, Kantabria jatetxean. Jarraian, bertsolariak eta trikitilariak.

17:30. Idi demak. Arraten.

ANTZERKIA

15:00. "Caperucita. Lo que nunca se contó..." (Teatro Teloncillo, Valladolid). Hezkuntza Esparruan. Debabarreneko Eskolarteko 33. Antzerki Erakusketaren barruan. Hezkuntza Esparruan.

Martitzena 16

IKASTEN

10:00. "Perretxikoen onurak" hitzaldia, Carlota Olaizolaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra. **17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

EMAKUMEEN ISTORIOAK

18:30. Emakumeen Istorioak: Gloria Fuertes. Dinamizatzailea: Leticia Martínez-Alcocer. Pagatxak antolatuta. Sarrera librea. Portalean.

LIBURU AURKEZPENA

19:30. "Retrato enigmático", María Luisa Blasco del Amoren liburuaren aurkezpena. Mateo Guilabertek aurkeztuta. Portalean.

Eguaztena 17

IKASTEN

09:12. Ibilaldia: Martutene-Fuerte S. Marcos. Bazkaria eraman. Trena hartzeko ordua, Ardantzan (09:14 Estaziñoan).

IPURTERRE SARIAK

10:00. Ipurterre Ipuin eta Gutun lehiaketako irabazleei sariak banatzeko ekitaldia. Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA

19:00. "Las crisis económicas a lo largo de la historia", Javier Iza-Goñola de Miguelen eskutik. Portalean.

DANBORRADA ENTSEGUA

19:00. Danborradarako umeen entsegua. **20:00.** Helduen entsegua. B. Sarasketa kaleko 7an.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

KONTZERTUA

20:30. J.B. Gisasola Musika Eskolako ikasturte amaierakoa. 3 euro. Coliseoan.

Eguena 18

IKASTEN

10:00. "Renoir Impresionismotik haratago. Ordenera itzuli" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.

MUSIKA-ANTZERKIA

15:00. "Dolce Clave Kids. Violinoren eta Guitarrillaren abenturak". Debabarreneko Eskolarteko 33. Antzerki Erakusketaren barruan. Hezkuntza Esparruan.

KALEETAN KANTUZ

17:45. Kaleetan Kantuz dantzak. Untzagako jubilatutako etxean. **19:30.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

LABURMETRAIAK

18:30. Lesbianismoa, transexualitatea eta transgeneroa gaiei buruzkoak. Lesbofobia eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira Andretxeak eta Gehitu-k antolatutako ekitaldia. Jarduera irekia eta doakoa. Portalean.

KALERATZEAK STOP

19:00. Kaleratzeak Stop plataformakoek bilera irekia. Portalean.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

19:30. "Visión fotográfica y lenguaje visual", Gabriel Brau Gelabert argazkilariren liburuaren aurkezpena. Bakarne Elejalde eta Jose Luis Irigoien Deporrek argazkilariek aurkeztuko dute, egilearekin batera. Portalean.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.




Zorionak, JUSTINA Urkiolak 90 urte egingo dittu domekan. Zorionak famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, MAIALEN, maite zaittugun guztion eskutik. Segi horrela eta tori patxo kilo bana.



Zorionak, CAROL, hillaren 6xan bi urte bete zenduaz-en-eta. Musu pilla bat famelixaren partez.




Zorionak, IRATI, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Naiaren partez!



Zorionak, JULEN, txapeldun!, atzo urtia egin zenduan-eta. Patxo haundi-haundixa etxekuen partez.



Zorionak, MARIA, zure hirugarren urtebetetzian. Masha Поздравляем третий день рождения.




Zorionak, LUCIA, astelehenian urtetxua beteko dozu-eta. Patxo haundi bat aitatxo eta amatxoren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, AIMAR, martitzenian zortzi urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, DANEL, atzo 10 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, zure anai Aner eta Noa lehengusiñaren partez.



Zorionak, ANDER Garcia Amas, atzo bi urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat aitta, ama, aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, EÑAUT, atzo sei urte bete zenduaz-elako. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Ekhiren partez.



Zorionak, AMANE eta LIBE, gaur urtiak betetzen dozuez-eta! 5 eta 2 tirakada fuerte belarritik eta milla musu bixontzat! Batez be, Pantxika, Inhar eta Martxelen partez.



Zorionak, ANE eta GAIZKA, atzo sei urte egin zenduez-en-eta. Etxeko danon partez.

zineaColiseoan


(1 ARETOAN)
13an: 22:30
14an: 20:00
15ean: 20:30

"El jugador de ajedrez"
Zuzendaria: Luis Oliveros



(2 ARETOAN)
13an: 19:45, 22:30
14an: 17:00, 20:00
15ean: 20:30

"Un italiano en Noruega"
Zuzendaria: Gennaro Nunziante



(ANTZOKIAN)
13an: 17:00(1 Aretoa),
19:45(1 Aretoa), 22:30
14an: 17:00(1 Aretoa), 20:00
15ean: 20:30

"Alien Covenant"
Zuzendaria: Ridley Scott



(ANTZOKIAN)
13an: 17:00(2 Aretoa)
14an: 17:00

"Los superhéroes"
Zuzendaria: Kyung Ho lee



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-649850.
- 4 logelako etxea alokagai Aoizen (Nafarroan). Iruñea, Orreaga eta Iraititi gertu. Lo rategiarekin. Astebururako, aste osorako edo hilabeterako. Tel. 670-351672.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Hiru logelekoa. Tel. 688-802329.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 662-012834.
- Pisua alokatzen dut Eibarren. Mugikortasun-arazoak dituztenentzat egokিতuta. Tel. 670-251253.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Birjiñape, 1ean. 33 m². Bulegoa egiteko aproposa. Tel. 688-678934.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 666-704348.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-026510.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 602-057185.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 648-039187.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 688-899813.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-367802.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-436462.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzan jarduteko, zaintzaile moduan, sukaldaritzan... Tel. 631-649850.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-266877. Eva.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 645-891307.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 682-277198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 697-754174.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 633-401678.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-553296.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (etxean zein ospitalean). Orduka. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta txakurrak pasiatzeko. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-025691.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-691242.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 634-978346.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-003537.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-473637.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-215907.
- Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-655390.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldaritzaz jarduteko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 688-728847.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-525817.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-384325.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-291539.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-127874.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-139806.
- 23 urteko neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 618-034460.
- Gizona eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-798189.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-166357.
- Neska euskalduna eskaintzen da soziedadadea edo pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Erreferentziak. Tel. 943-901422.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 688-712075.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 609-806462.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta bulegoak edo pegorak garbitzeko. Tel. 654-304337.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-388416.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 632-337083.

- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserrian lan egiteko. Tel. 632-337083.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita gauetan ere. Tel. 632-035709.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita gauetan ere. Tel. 632-669488.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita gauetan ere. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 633-101852.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 662-430951.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 612-202116.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta publizitate lanean jarduteko. Tel. 631-222681.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 633-808931.

4.2. Langile bila

- Bergarako enpresa batek ardatz anitzeko tornoa trebea den langilea behar du. Tel. 626-672020 eta betiko@industriasbetiko.com
- Kamarera/o behar da asteburuetan eta udan lan egiteko. Curriculuma bidali: eibar-kafe@gmail.com
- Kamarera/o behar da Sorluzen, egun osoko lanaldirako. Tel. 670-541347.
- Eibarko Kids and us-ek koordinatzailea behar du 2017-18 ikasturterako. Taldeak bideratu eta zuzentzeko gaitasunarekin eta ingeles maila altuarekin (C1 titulua gutxienez). Umeak gogoko izatea eta inplikazioarekin. Bidali curriculuma: direccion.eibar@kidsandus.es

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak eta ume zein helduei. Azterketetarako prestaketa: EGA, IVAP, HABEren perfilak... Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailetako Matematika, Fisika etabarretako klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak eta 2/3 ikasleko taldekoak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alerto.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

Gozatu betidanik nahi izan duzun ekipamendu guztiaz.

Hyundai Tucson Kosmo Edizio Berezia lurrera heldu da sinestezinezko ekipamendurekin eta beste galaxia bateko 5.550€-rainoko deskontuarekin.

Horren barne daude:

- Ukimen-pantailaz lagundutako nabigazio-sistema.
- Abiarazteko botoia eta gertutasun-detektorea dituen giltz adimenduna.
- Nahigabeko errail aldaketarako sistema eraginkorra.
- Aparkatzeko atzeko kamera gida eraginkorrekin.
- Euri, argi eta aparkatzeko sentsorea, aurrean eta atzean.
- 19 pulgadako aleaziozko uztaiak.
- Berotu daitezkeen bolantea eta jarlekuak.

Eta betiko moduan:

- 5 urterako bermea, km mugarik gabe.
- 5 urterako laguntza errepidean.
- Gainera, zure Hyundaiak ez bazaitu konbentzitzen, itzuli egin dezakezu inolako konpromisorik gabe.

Galdetu baldintza bereziengatik zure kontzesionarioan.

Hyundai Tucson **KOSMO**

Edizio Berezia



5.550 €
-rainoko deskontua

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO
[WWW.OARSOCAR.COM](http://www.oarsocar.com)

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamas, 43
943 63 97 69



Hyundai Tucson Kosmo gama: CO2 emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-7,5.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan Tucson 1.7 CRDI 115CV (84,6kW) BD 4X2 KOSMÖrentzat, 5.550€-rainoko deskontuarekin. BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimenduko eskaintza barne. Hyundai-ra Aldatu Plana aplikatu daiteke erabilitako auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Cinking Solución Flexible produktuekin finantzatzen duten bezero partikularentzat. Santander Consumer EFC S.A.-ren bitartez, 15.000€ gutxienez, 36 hilabetezko gutxieneko epean eta 36 hilabetezko gutxieneko egonaldiarekin. Finantziario finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2017/05/31ra arte da baliozkoa. Ikusten den modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziarioari lotua. *Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduzko Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendua eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.

SUMMER CAMP

5 eta 11 bitarteko umeentzako txango eta ekintzak gozatu eta ikasi irakasle ingelesekin

ekainaren 26tik uztailaren 25era

BBIEWHITE
ENGLISH SCHOOL
BISTA EDER 7 BEHEA
605693147



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun

 innovadental
clinicas

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com